



«Zentzu batean
begano izatea
intsumiso
izatea da»

**Edurne
Elizondo**

**Frantziako
Presidentetzarako
bozak**

Sarkozyren agintea
kolokan

**Berlingo
Euskal Etxea**

Gernikako
bonbardaketaren
oroimenak sortua

Iraultza ortuetan

Lurra joratu gabe hazi
barazki eta laboreak

Euskara Laudion

Kale erabilera bikoiztu
baino gehiago egin da
hamar urtean



Egia eta justizia

- Egiaren Batzordeak beste herrialdeetan
- Halako komisio bat nola eratu Euskal Herrian

Datorren astean



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaita Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



Deabruaren abokatua

- **Iñigo Segurola:** «Paisaiak bertan bizi den gizartearen diagnostikoa egiten du». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Berlingo euskal etxea.** Alemaniarrek zubia eraiki dute Gernikaraino. NAGORE IRAZUSTABARRENA / 5

Pertsonaia

- **Edurne Elizondo:** «Inori eskatzen ez zaizkion azalpenak exijitzen dizkigute beganooi». REYES ILINTXETA / 11

Gaiak

- **Jorraketarik gabeko nekazaritza.** Iraultza ortuan: fuera golde-aitzurak. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 16

Iritziak

- **Zirtak** Perfekzioa (I). Lasarte. JULEN GABIRIA / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 21
- Gaurko esklaboak. XIPRI ARBELBIDE / 22
- **Txandan** Nafarroa 1512-2012. AMATIÑO / 22
- Konposatzen. GORKA URBIZU / 23
- **Hiruko txikian** Aberri Eguna. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** Hunkitu ninduen bertso sail bati. IMANOL LAZKANO / 24

Erdiko kaiera

- **Potemkin zine zikloa.** Hausnarketarako korazatua. MYRIAM GARZIA / 25
- **Literatura.** Urrezko Biblioteka digitalaren alde. GORKA BEREZIARTUA / 27
- **Liburuak** XABIER ETXANIZ ERLE / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30 • **Abarrak** JON TORNER / 31
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

Termometroa

- **Frantziako presidentetzarako bozak.** Sarkozy ala Hollande: bozen arrantzan, zirt eta zart. MIKEL ASURMENDI / 37
- **Tuaregak.** Zergatik ez du nahi nazioartek Azawaden independentzia? JAKOBA SALVADOR / 41
- **Euskararen kale erabilera Laudion.** %3,69tik %9ra hamar urtean. MIEL A. ELUSTONDO / 42
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** «Agur nuklearrak» Japonian esaten da «Saionara Genpatsu». PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Beti mendiko suak.** ANUNTXI ARANA / 50



“Paisaiak bertan bizi den gizartearen diagnostikoa egiten du”

Iñigo Segurola

“Baratze bat nahi deizut egin...”.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

“Guay izateko izan eko!”, diote postmodernistek.

Pentsa, Pasaia Superportuari ere Ekoportua deitzen diote! Kapitalismoa gizakiaren berekoikerian oinarritzen da, eta garatu dugun kontzientzia ekologikoa egoera ekonomiko eroso bati lotuta dago. Zer gertatuko da krisiarekin?

Zuk ere berehalako etekinarekin itsutu garela esan behar didazu?

Pentsamendu maskulinoa, falikoa, inposatzailea da hori. Ez duzu sekula entzun munduko zakil guztiak mozteak berehalako aldaketa ekarriko lukeela, baina zakilak dauden bitartean ez dagoela zereginik?

Bai, bai, gu hil ostean ere bizitzak jarraitzen duela eta hori guztia...

Hazkunde geldiezin honetan denontzako tokia egon daiteke, baina baliabideak lortzeko bidean gure inguruko espezieak desagerrarazten ari gara. Gure ostean bizitzak jarraituko badu, gizakiaren esterilizazioa bultzatu behar genuke.

Segi, segi lagunak egiten.

Gure mundu egitura piramidala da baina esferikoa behar luke. Elefante bat ez litzateke birus bat baino indartsuagoa, denak leukake izateko arrazoia, dena legoke orekan. Horregatik, emakumeek eta ekologiak izan behar dute gizartearen ardatzak.

Alarde mistoen aurkako protestetan emakumeak dira sutsuenak.

Zein da gizonezkook diseinatutako mundu honetan nor izateko utzi diegun bide bakarra? Honelako mundu batean emakumeak bere berezko instintuak garatu ote ditzake? Hala, gizonezkoen paperean sartzen den emakumea gizonezkora baino okerragoa izan daiteke.

Eskerrak paisajista baino ez zinen!

Paisaia, leku zehatz batean, onerako zein txarrerako, gertatzen direnen erakuslea da: bertan bizi den gizartearen diagnostikoa egiten du.

Martxa honetan, AHTaren gizartea izango da gurea.

Paisaia beti dago zintzilik. Orain arte Kantauri isurialdea horrela mantendu bada ardigazta ondo saldu delako izan da. AHT? Era-gin izugarria izango du eta betiko geratuko den zauri bat izango da.

Alegia, hobe duzula telebistan lore-zainarena egiten jarraitzea.

Kalean, etxeko andreek geranioei eta gazteek marihuanari buruz galdetzen didate. Ez dakit zergatik, munduko marihuana landare onenak hazten ditudala dioen mito urbano bat dago, eta nik ez dut erretzen eta ez daukat landarerik. ■



Berlingo Euskal Etxea

Alemaniarrek zubia eraiki dute Gernikaraino

Berlingoa euskal etxe berezia da. Ez zuten euskaldunek sortu, eta etxerik, egoitzarik ere ez du. Etxea baino gehiago, zubia da, Euskal Herria eta Alemaniaren arteko zubia. Elkartearen pizkailua Gernikako bonbardaketaren oroimena izan zen, eta 75. urteurren honetan ere Gernikak hormarik gabeko etxe bat du Berlinen.

NAGORE IRAZUSTABARRENA

CONSTANZE LINDEMANN Iberia hegazkin konpainia espainiarrak Berlinen duen bulego-
ra hurbildu zen 1996ko egun batez, talde
handientzako tarifa bereziak ote zituzten gal-
detzera. Handik hilabete batzuetara, Gerni-
kako bonbardaketaren 60. urteurrenean,
gaiari buruzko sinposio bat egingo zen Ale-
maniako hirian, eta Euskal Herritik hainbat

pertsonak hara joan behar zutenez, hegazkin
txartelen kontua kudeatzeaz arduratu zen
Constanze. Iberiako langileari gaia azaltzeko
Gernikaren eta han gertatutakoaren berri ba
ote zuen galdetu zion, eta hark, barrez,
baietz, euskalduna zela. Constanze Linde-
mann Berlingo Euskal Etxeko sortzaileetako
bat da, eta egun hartan hegazkin konpainia-



HELENA FALABINO

Constanze Lindemann, Berlingo Euskal Etxeko sortzaileetako bat, Gernikako bonbardaketaren 75. urteurreneko erakusketaren inaugurazioan, apirilaren 1ean.

Fritz Teppich (edo Alfredo T. Salutregi)

Fritz Teppich Berlinen jaio zen, 1918an, judutar familia ezkertiar baten baitan. Francoren altxamenduaren berri izan zuenean, 17 urterekin, Frantzia osoa zeharkatu zuen indar antifaxistekin bat egiteko.

Orduan jaio zen Alfredo T. Salutregi, Teppichek hiru urtez izen hori hartu baitzuen euskal ejertzitoarekin frankisten aurka borrokatzeko —eta Teppichek berak esanda, hiru urte horiek igarota ere, Alfredo T. Salutregi izaten jarraitu zuen—. Azaña eta Tomás Meabe batailoietan, eta, azkenik, 163. Brigada Mistoan jardun zuen, Bilbo eta Donostiako guduetan. Euskal lurraldeak frankisten esku geratzean, Kataluniara iristea lortu zuen, han borrokan jarraitzeko. 1939ko martxoan, Errepublikaren gobernuaren behin betiko porrotak



Belgikara eraman zuen. Baina nazien inbasioaren ondoren, Gurseko esparruan sartu zuten eta, aurrerago, Le Vernet esparruan. Handik ihes egin eta Portugalera iritsi zen. Han atxilotu eta espetxean egon zen II. Mundu Gerra amaitu artean.

1946an itzuli zen jaioterrira, eta bizimodu arrunta berreskuratu zuen, militantzia politikoa baztertu gabe eta Euskal Herriarekiko lotura eten gabe. Hala, Berlinera itzuli eta mende erdira, Gernika Kultur Elkartearen (Berlingo Euskal Etxearen) sortzaile eta sustatzailer nagusietakoa izan zen. Horregatik, bonbardaketaren 75. urteurrenean Gernikara joatekoa zen, elkarteko beste kide batzuekin batera. Baina Fritz Teppich iragan otsailaren 24an hil zen, 93 urte zituela.

ren bulegoan topatu zuen emakumea, Ainhoa Añorga, elkarteko lehendakaria.

Constanze inprimatzailea da eta komunikabideen sektoreko sindikatuan ere aritzen da. “1996an Fritz Teppich borrokalari zaharrak sindikatuko galerian Espainiako Gerrari buruzko erakusketa bat egiteko proposatu zigun”, dio.

Gernika Kulturverein

Urte hartan Gernika eta Pforzheim hiriak senidetu ziren, Alemaniako parlamentuan Gernikako bonbardaketaren gaia jorratu zen, baina euskaldunek eskatzen zuten adiskidetzetara ez zen iritsi. “Alemaniar politikan iragan nazionalsozialista oso gai irristakorra eta zaila da. Aitzakia onartezinak eman zituzten: soilik Gernikako zubi bat bota nahi zutela, hiri osoa nahi gabe suntsitu zutela...”. Senidetutako hirietako alkateak erakusketara gonbidatu zituzten parlamentuak bake keinuari jarritako oztopoez eztabaidatzeko. Horren ondoren, bonbardaketaren 60. urteurrena gertu zela eta, beste zerbait prestatzea erabaki zuten alemaniarrei Gernikan gertatutako jakinarazteko. Hurrengo urtean Gernikari buruzko sinposioa antolatu zuten, eta Gernika Deutsch-Basischer Kulturverein (Gernika Euskal-Alemaniar Kultur Elkarte, gerora euskal etxe izendapena jasoko zuena) sortu zuten.

Elkartearen sortzaile gehienak adindunak dira, batzuk Espainiako Gerra eta Bigarren

“Alemaniar politikan iragan nazionalsozialista oso gai irristakorra da. Aitzakia onartezinak eman zituzten: Gernikako zubi bat bota nahi zutela, hiri osoa nahi gabe suntsitu zutela...”

**CONSTANZE LINDEMANN,
BERLINGO EUSKAL ETXEKO SORTZAILEA**

Mundu Gerra bizitakoak, beste batzuk Alemania garaitu eta zatituko gerraoste gogorean jaio eta hazitakoak, erregimen nazionalsozialistaren eta gerraren biktima ere izandako alemaniar herritarrak. Eta hala ere, adiskidetzearan alde eta Gernikan gertatutakoan Alemaniaren erantzukizuna onartzearen alde lanean aritzea erabaki zuten. Constanze Lindemannek haien eskuzabaltasunari garrantzia kendu nahi dio, eta Gernikaren bonbardaketari eman: “Jakina, Alemanian ere hildako asko izan ziren, baina guk beti esaten dugu Bigarren Mundu Gerra Espainian hasi zela 1936an. Goering-ek berak Nurembergeko prozesuan onartu zuenez, alemaniar faxistek beren hegazkinak eta armak probatu nahi zituzten eta Espainiako Gerra, zehazki

Gernika, izan zen haien proba eremua. Garbi dago naziek gerra nahi zutela, eta beren interesen alde Europa erdia suntsitu zutela. Alemaniaren kapitulazioa askapen eguna izan zen alemaniarrentzat ere”.

Euskal etxe ezohikoa

Berlingo Gernika Kultur Elkarteak 2010ean jaso zuen euskal etxe izendapena, baina ezohiko euskal etxea da. Etxea denik ere ezin esan, egoitzarik ez baitu. Eta, ikusi dugunez, alemaniarrek sortu zuten; Tokiokoarekin batera, euskaldunek sortu ez duten euskal etxe bakarra da.



HELENA FALABINO

Goian, ezkerrean, Berlingo Euskal Etxeko hainbat kide, alemaniar nahiz euskaldun. Ezkerretik eskuinera: Unai Lauzurika, Lourdes Izagirre, Constanze Lindemann, Ainhoa Añorga, Wolfgang Wippermann, Josu Outeiral, Ingo Drostel eta Klaus Ihlau.

Eskuinean, iazko martxoan Berlingen egin ziren hainbat ekitaldi karteletan iragarrita, Txirritaren irudia duenak Korrikaren inguruan antolatutako ekitaldiak iragarri zituen.

Lerro hauen ezkerrean, Korrika Brandenburgoko Ate aurrean. Azpian, euskal dantza ikastaroa.

Ainhoa Añorgak, 1997ko sinposiorako hegazkin txartelen erreserbak egin ondoren, hitzaldietan entzule gisa parte hartu zuen, eta ondoren elkarteko kide izan nahi ote zuen galdetu zioten. “Gustura esan nien baietz, eta urtetan ni izan nintzen elkarteko euskaldun bakarra; azken urteetan, Berlinera lanera edo ikastera etorritako euskaldun gehiago gaude elkartean”. Egun, 45 bazkide inguru ditu euskal etxeak.

Eta hasierako xedea bonbardaketaren oroimena gordetzea eta zabaltzea izan arren, berehala hasi ziren helburu zabalagoen bila: euskaldun eta alemaniarren arteko harrema-



BERLINGO EUSKAL ETXEA



UMBRUCH BILDARCHIV



BERLINGO EUSKAL ETXEA

Askatasuna, bakea...

AUTODETERMINAZIOA

Apirilak 21-22 Gernika



1937 **75** URTE 2012
GERNIKA BATZORDEA

Gernika- Alemania: adiskidetzaren kronika

1997ko apirilaren 27an, Gernikako Merkatuko plazan, Alemaniako presidente Roman Herzogek, Henning Wegener Madrilgo enbaxadorearen bidez, Gernika suntsitzearen errua alemaniarrek zutela onartu, eta barkamena eskatu zuen. 60 urte eta egun bat lehenago bonbardatu zuten Bizkaiko hiria.

40 urtez Gernika suntsitzeari buruzko eztabaida eta ikerketa itzali zuen frankismoak. Haien bertsioaren arabera, Gernika euskal nazionalistek eta gorriek erretiran suntsitu zuten. Baina diktadorea hil zenean, bonbardaketari buruzko ikerlanak argitaratzen hasi ziren. Esaterako, Klaus A. Maier Alemaniako aireko indarretako komandanteak, hainbat dokumentu aztertu eta Gernika “alemaniar proiektua” izan zela egiaztatu zuen.

Halaber, Franco hil ondoren, gernikarrek gertatutakoa libreki oroitzeko aukera izan zuten. Eta gorrotoa eta mendekua baztertuta, gehienek zauriak sendatzearen eta alemaniarrengana hurbiltzearen alde egin zuten, adiskidetze keinu baten bila.

Alemaniarrentzat, ordea, ez zen gai samurra. Iragan nazionalsozialista gairatzeko modurik egokiena ahaztea zen batzuentzat, oroitzea beste batzuentzat. Baina gehienentzat Gernika pasarte hutsala baino ez zen hainbeste krimenen artean.

Michael Kasperrek (1960-2005) *Gernika und Deutschland. Geschichte einer Versöhnung* (1998) lanean azaldu zuenez, adiskidetze prozesua 1979an abiatu zuen Gernika Batzordeak. Jesus Arana ordezkariak Alemania goitik behera ibili zuen keinu baten bila. Baina proiektu zehatzik lortu ez eta batzordea 1987an desegin zen.

Hurrengo saiakera Alemaniatik iritsi zen. Berdeak (Die Grünen) alderdiko Petra Kellyk eta Gert Bastianek bonbardaketaren erruduntza onartzeko eta, adiskidetze keinu gisa, Gernika Gogoratuz proiektuari laguntza emateko eskatu zioten Alemaniako parlamentuari. Baina eskaera ez zuten onartu.



1988ko azaroaren 10ean, parlamentuak Gernika eta Pforzheim hiriak senidetzea eta Gernikak lanbide heziketa sustatzea onartu zuen. Senidetzea berehala gauzatu zen; lanbide heziketa bultzatzeko Gernika Proiektua, ordea, ez zen sekula egin. 1996an Alemaniako Gobernuak 3 milioi markoko dirulaguntza eman zuen Gernikan kiroldegia eraikitzeko. 20 urtez adiskidetzaren alde aritutakoentzat, laguntza

hark ez zuen zerikusirik iragana gairatzearekin eta adiskidetzearekin, 1988an egindako promesa gainetik kentzeko bide hotza izan zen, eta adiskidetze keinua behar zuena, “keinua lotsagarria” besterik ez zen izan.

Prozesuaren amaiera desengainua izango zela zirudienean, azken ahalegin bat egin zen, eta hala lortu zuen, azkenean, Alemaniako presidentek hainbestetan eskatutako keinua egitea.

Constanze Lindemannek azaldu digunez, “eskutitz bat idatzi genion Herzog presidenteari, bonbardaketa jasan zutenen familiek bizitzakoa, bonbardaketari buruzko lehen eskuko egia azaltzeko, gezurrak eta aitzakia onartezinak baztertzeko”. Eta Gernika elkarteak 60. urterrena baino bi aste lehenago antolatutako sinposiora gonbidatu zuten, baina presidentearen idazkariak erantzun zieten ezingo zuela bertan egon. Presidenteak gutun bat idazteko prest zegoela jakinarazi zieten. “Guk esan genien gutuna ez zigula guri idatzi behar, Gernikako herritarrei baizik. Jakinarazi ziguten, Herzogek Madrilgo enbaxadorea Gernikara bidaliko zuela, gutuna irakur zezan, baina horren berri ez zabaltzeko eskatu ziguten. Gernikako orduko alkate Eduardo Vallejo ere ez zekien ezer, sinposiora etorri eta guk esan arte. Parlamentuak ere ez zekien, eta apirilaren 26an, berdeek eta sozialdemokratek gaiari buruzko eztabaida eskatu zutenean, gehiengoak ezetz esan zuen. Egun hartan, Herzogek irratiz adiskidetze keinua egingo zuela jakinarazi zuenean, bonba txiki bat lehertu zen, CDUko alderdikideek ere ez baitzekiten biharamunean gertatuko zena”.



Berlingo Zehlendorf auzoko txoko honi *Guernica* izena jartzea, bonbardaketaren 60. urteurrenaren beste lorpenetako bat izan zen. Berlin hegoaldean Spanische Allee edo Espainia etorbidea dago. Gutxiak dakite kale horri izena 1939an ipini ziotela Cónдор Legioa Berlinera itzuli zela ospatzeko. 1996an, Gernikako alkatea Berlinera joan zenean, izenak faxismoarekin, Espainiako Gerrarekin eta Gernikarekin zuen loturari buruzko eztabaida egin zuten etorbidetik gertu dagoen eliza protestante batean. Eduardo Vallejo eta bonbardaketatik bizirik atera zen lekuko batek ere parte hartu zuten solasaldian. Zehlendorf auzoko administrazioak etorbideari izena ez aldatzea erabaki zuen, baina hango plazaratxo bati *Guernica* izena ematea erabaki zuten. Handik bi urtera plaka batean idatzita ipini zuten izen berriaren arrazoia. 70. urteurrenean afixa argiztatuak eta testuak zehatzagoak ipini zituzten, handik pasatzen diren herritarrek Gernikan eta Espainiako Gerra Zibilean gertatukoaren berri izan dezaten.

nak sendotzea, eta euskara eta euskal kultura Alemanian sustatzea. “1996ko urrian izan nintzen lehenengoz Gernikan” dio Lindemannek, “Eduardo Vallejo Gernikako orduko alkateak gonbidatuta. Astebetez toki askotan izan ginen, eta lehenengoz benetako euskal kulturaren eta, batez ere, euskararen

berri izan genuen. Hemen, Alemanian, euskaldunei buruz galdetuz gero bi gauza aipatzen zizkizuten: txapela (alemanez “basenmütze” esaten zaio, hau da “euskal txapela”) eta ETA. Hori aldatu nahi genuen, ETArek eztabaida alde batera utzi, eta euskal kultura ezagutarazi. Gainera, Gernikan ale-

GERNIKAKO BONBARDAKETAREN 75.URTEURRENA

APIRILAK 26

Gernika-Lumo 2012

kulturetxea
GERNIKA-LUMOKO FUNDATZIO PUBLIKOA

GERNIKA
LUMO
gure sarririk

Gernika, 75. Jahrestag der Bombardierung



HELENA FALABINO

Izenburu horrekin eta Gernikaren bonbardaketaren urteurrenaren karietara, Berlingo Euskal Etxeak erakusketa eta hitzaldi sorta antolatu ditu apirilaren 1etik 26ra, Haus der Demokratie und Menschenrechte egoitzan. Erakusketak bonbardaketa eta elkarte bera ditu hizpide. Hitzaldi sortari Wolfgang Wippermann historialariak eman zion hasiera, eta Benjamin Inal-ek itxiko du bonbardaketak arteetan izan duen islari buruzko hitzaldiarekin. Film emanaldiek eta kontzertu batek osatzen dute egitaraua.

Apirilaren 26an, agurra eta lore-eskaintza egingo dira Zehlendorf auzoko Guernica Platz-en. Plazaren inguruko hiru elizek bat egin dute ekimenarekin eta kanpaiak joko dituzte, Gernikako ezkilen errepikaren ordu berean.

Horrez gain, apiriletik aurrera, beste ekitaldi batzuk prestatzen ari dira, esaterako, ekainaren 1ean, Neukölln langile auzoan, Euskal Herriko eta Alemaniako hainbat artistek graffiti erraldoia egingo dute, Picasoren *Guernica* abiapuntu hartuta, eta auzoko haur eta gazteen parte-hartzea bultzatuta.

maniar bat zegoen, Michael Kasper, Gernika Gogoratuz-eko kidea, zoritxarrez oso gazte hil zena, eta Gernikako eta Berlingo elkar-teen arteko truke aberasgarria sortu zen”.

Ainhoa Añorgak alemaniarrek euskaldun- ez duten irudia baieztatu digu: “Elkarteak sortu berritan, irratian elkarriketatu gintuzten, eta lehenengo txantxa baskenmützea eta armak non utzi genituen galdetzea izan zen. Kultura oso aberatsa dugula, gure kulturatik ekarpenak egin ditzakegula erakutsi behar genuen”.

Esaterako, literatur trukeak egiten hasi ziren, hasieran hala moduzko itzulpen gutxi batzuekin. Azken urteetan, urtero aurkezten dira euskaratik alemanera itzultutako lanak. Elkartean bertan ere bada itzultzaileak. Adibidez, DDR zaharrean bizi izandako Hans Joachim-ek, han ikasi zuen euskara, bere

“Ez gara ohiko euskal etxea, kulturarekiko interesa duen publiko alemaniarri zuzenduta daude, nagusiki, gure jarduerak, eta ez hainbeste hemen bizi diren euskaldunei”

**AINHOA AÑORGA,
BERLINGO EUSKAL ETXeko LEHENDAKARIA**

kabuz. Egun 70 urtetik gora ditu eta Edorta Jimenezen lanak alemanera itzultzen ari da.

“Horregatik ez gara ohiko euskal etxea” dio Añorgak, “kulturarekiko interesa duen publiko alemaniarri zuzenduta daude, nagusiki, gure jarduerak, eta ez hainbeste hemen bizi diren euskaldunei”. Hala, Gernikaren bonbardaketaren 75. urteurrenaren inguruan antolatutako ekitaldi berezietan gain, Berlingo Euskal Etxeak ohiko jardunarekin jarraitzen du. Ostegunetan euskara eskolak ematen dituzte, eta ostiraletan euskal dantza ikastaroak. Hilean behin, euskal zinema emanaldia antolatzen dute. Azken bi urteetan Euskal Koreografoen Berlingo Jaialdia antolatu dute, eta, horrez gain, urtero Karneval der Kulturen (Kulturen inauteria) ekitaldian parte hartzen dute Euskal Herriko ordezkariak bidez. Liburu aurkezpenak, errezitaldiak, kontzertuak edo antzerki emanaldiak antolatzen dituzte tarteka, eta iaz Korrika Berlingo kaleetan ere izan zen elkar-teen lanari esker.

Etixerik ez, baina ate asko

Euskal Etxeko lehendakariaren esanetan “hori guztia egoitza finkorik gabe eta bitarteko gutxiarekin egiteko, maiz eskan ibili behar dugu nolabait. Euskara eskolak, adibidez Iberika hizkuntz eskolaren egoitzan ematen ditugu, egunotako erakusketa Haus der Demokratie und Menschenrechte-rekin elkarlanean egin dugu... Ideia bat izan ohi dugu, eta jarduera hori egiteko egokia deritzogun egoitza aukeratuta, elkarte edo erakunde horri elkarlana proposatzen diogu”. Horrela funtzionatu dute hamabost urtean, eta Internetek asko lagundu diela diote, “bilerarik egin beharrik gabe, fisikoki gune batean bildu gabe, jende askorekin komunikatzeko aukera ematen dizu”.

Alemaniarrek jakin behar zuten Gernikan zer gertatu zen, Euskal Herria zer den eta zer ondare kultural eskain dezakeen.

Orain euskaldunok jakin behar dugu Berlingen gure iraganaren eta kulturaren alde zer egin duten alemaniarrek. ■





• P E R T S O N A I A •

Edurne Elizondo

«Inori eskatzen ez zaizkion azalpenak exijitzen dizkigute beganooi»

Camille hartza Pirinioetako bakardadean, Itoizko urtegia nahi ez zutenak, derrigorrezko soldaduskari galbidea ekarri zioten intsumisoak... Desobediente anitz ezagutza eman digun kazetari argia da Elizondo. Bere animaliekiko maitasun eta grina kutsakorra da oso eta gustura solastatu gara beganismoaz, barne kontraesanez, zalantzez, koherentziaz bizi nahi izateaz. Elkarrizketa amaituta, egia esan, urdaiazpiko pintxoak ez da lehen bezain tentagarri ikusten.

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

Natura eta kazetaritza, zure bi pasioak?

Idaztea gustatu zait beti eta animaliekiko grina ere neurea dut. Nire kasuan uste dut bi zaletasunak Camille hartzaren kontuarenga-

tik uztartu zirela. Mugarria izan zen niretzat. Camille Nafarroan agertu zelarik, 1990eko hamarkadaren bukaeran, niri egokitu zitzaidan hainbat erreportaje egin behar izatea.

Orduan hasi nintzen esparru horretan sartzene eta, batez ere, jendea ezagutzen. Hori niretzat garrantzitsua da. Ingurumen kontuetan lanean ari den hagitz jende interesgarria ezagutzeak eta haien eskutik gauzak ikasi ahal izateak gehiago jakiteko gogoia pizten dizu. Hartzaren arrastoen atzetik Erronkarin hasi nintzen. Gerora horrek Asturiasera eramane ninduen eta 2003az geroztik urtero joane izan naiz. Hemen Nafarroan niretzat oso garrantzitsuak dira Gorosti taldeko kideak, besteak beste.

Hartzaren atzetik eta orain otsoak ikusi dituzu.

Azken zortzi urteotan Narceako kontzejuan hartzaren bila ibili naiz FAPAS taldeko lagunekin, eta han otso asko ere badira. Mamuen gisakoak dira, arrastoa baizik ez duzulako aurkitzen. Orain Zamoran bai, ordea, ikusi ditugu. Asteburu bateko ikastaroa egin berri dut Javier Talegón biologoarekin. Ikaragarriko zaletasuna du eta ahalmen handia hori transmititzeko. Mendian halako aditu batekin ibili ahal izatea ikaragarria da.

Beldurgarriak?

Argi daukat animaliarik arriskutsuenak giza-kiak direla, batez ere eskopeta eta pozoia hartuta. Oso fama txarra dauka otsoak eta egia da kalteak sortzen dituela, baina gauzak bere neurrian jarri behar dira. Otsoaren errealitatea ezin da nekazari edo abeltzain baten ikuspuntutik kudeatu. Oreka bat lortu behar duzu. Kalterik bada, ordaindu behar da, baina hobe da erasoei aurre hartzea. Ikasi behar da, lehenbizi, otsoa zer den, nola bizi den, zer jaten duen, noiz eta zergatik egiten duen eraso artaldeetan... Basurdeak eta orkatzak izanez gero, ez ditu artaldeak erasoko. Eta jakin behar da ere zer onurak dakartzan. Besteak beste, beti saiatzen dira harrapatzen ahulene dauden aleak, beraz, alde horretatik laguntzen dute belarjaleen populazioa sendo mantentzen.

Antzeko zerbait esan daiteke hartzari buruz, ezta? Nola kudeatu da hartzaren afera Nafarroan?

Nik ulertzen dut ezin dela informazio guztiguztia eman, batez ere muturreko jarrerak daudenean, baina Camilleren kasuan ez da ia ezer erran eta zerbait atera denean komunikabide zehatz batzuetara bideratu da soilik. Hemen Nafarroan erasoak gertatzen direnean badago kalte-ordain bat, baina erasorik gertatu gabe ere orain arte ordaindu izan zaie abeltzainei beren animaliak hartza zegoen esparruan izateagatik. Diru-laguntza hori aurtene desagertu da. Urte hauetako hartzaren erasoene zerrenda ikusita bistakoa da oso era-

Hartza Erronkarin

"Hartzari duen balioa eman behar zaio, eta horretarako onena litzateke bertze tokietan egin dutena ikustea. Erronkari bezalako ibar batentzat etorkizunerako giltza izan liteke. Nik uste dut haiek ere konturatzen hasi direla orain, duela bi urte inguru Camille desagertuz geroztik".

gin murrizta izan duela eta oso abeltzain gutxiri eragin diola. FIEP taldeko kideek anitzetan kritikatu dute Nafarroako Gobernuaren orain arteko hartzaren afera kudeatzeko modua, kalteak ordaindu bertzerik ez duela egin. Haiek proposatzen dute artzaina biodibertsitate sortzailatzat hartzea, eta jarduera hori saritzea, hartzaren eta artzainen arteko harreman horretan alderdi positiboa nabarmendu ahal izateko, eta harreman hori hobetzeko. Hartzaren ikuspuntutik bide hori egokia iruditzen zait. Antiespezista naizen aldetik, berriz, abeltzaintzaren atzean dagoena kolokan jarri bertzerik ezin dut egin, abeltzainarentzat animalia baliabide ekonomiko hutsa izaten delako.

Bestalde, Asturiasen azken urteotan turismoak bultzada handia izan du hartzari esker, baina horrekin ere kontuz ibili behar da, ezin delako mendian eta animalien inguruan nahi bezala ibili.

Félix Rodríguez de la Fuenteren saioak ikusten zenituen txikitan?

Bai, ni Félixen alaba naiz, zentzu horretan. Etxean daukat bere *Fauna* entziklopedia. Anitzetan zalantzan jarri izan da haren lan egiteko modua. Ziur naiz lan horrek alderdi argiak eta ilunak izanene zituela, baina Félix Rodríguez de la Fuenteren dokumentalek belaunaldi oso batean izan zuten eragina ukaezina da. Ni belaunaldi horretako kidea naiz. Telebistari so gelditzen nintzen Rodríguez de la Fuente agertzen zenean. Harekin deskubritu nituen, neurri batean, natura eta otsoaren gisako animaliak. Gerora egin dut antiespezismora bidea. Baina hark utzitako arrastoa ez da desagertu. Transmittitzeko ahalmen ika-

Nortasun agiria

Edurne Elizondo Mitxelena, Beran jaioa 1972ko urriaren 27an. Berria egunkariko kazetaria eta egun Ingurumen Zientzietako ikaslea UNEDen. Kazetaritza eta naturazaleasuna uztartu ditu bere jardueran. *Itoitz. Porlanezko Gezurra* eta *Ez dugu nahi. Intsumisioaren ahotsak Euskal Herrian* liburuen egilea da. Antiespezista, animalien eskubideen defendatzailea eta beganoa (ez du animaliarik ezta animalietatik eratorritako produkturik jan edo erabiltzen). Lolita katua- rekin bizi da. Elkarrekin bizi dira, baina ez da berea. "Katua- rekin dilema anitz ditut. Berak anitzetan jarri nau ataka zailetan: erabaki behar izatea bere bizitzeko modua, bere osasunaz... Lolita ere beganoa da ni bezala, nik hala erabaki dudalako".



AZKEN HITZA

Lur jota

“Behin Angelita Alfaro sukaldariari elkarrizketa egin nion. Emakume honek beti eman behar dizu zerbait jateko. Niri turroi batzuk eman nahi zizkidan eta esan nion ez nuela jaten, barazkijalea nintzela —ez nintzen ausartu beganoa nintzela esatera, azalpenak ematen hasi behar ez izateko—. Eta berak esan zidan ‘¿Vegetariana? ¿Y se puede estar así de rolliza siendo vegetariana?’. Lur jota utzi ninduen”.

ragarria zuen. Biologia fakultateak bete egin ziren berari esker eta Estatu osoan talde ekologista anitz bere eraginpean sortu ziren. Iazko udan bere alaba txikia, Odile, fundazioa daramana, ezagutu nuen, eta niretzat izan zen gaurko haurrentzat futbolari ospetsu bat ezagutzea bezala.

Noiztik zara beganoa?

Begano “karneta” 2005eko martxoaren 8an ateratu nuen. Animalismoen esparruan aktibista den jendeari askotan, kritika moduan, esaten zaizkion gauzek harrituta uzten naute: “Animalien alde ari zara, baina zer gertatzen da Afrikako haurrekin edo emakumearen egoerarekin?”. Batzuek ez dute ulertzen. Uste dute gizakiak ez diren bertze animaliez arduratzen garelako, ez dugula gizakiarenganako kezkarik izaten. Horregatik Emakumearen Eguna nahita aukeratu nuen beganismoarekin hasteko. Beganoa naiz eta emakumeen arazoez ere arduratzen naiz, adibidez. Inori eskatzen ez zaizkion azalpenak exijitzen dizkigute guri. Ematen du beganook perfektuak izan behar dugula. Ni beganoa naiz eta puntu, eta ez zait iruditzen hori arazo guztiak konpontzeko giltza magikoa denik.

Euskal Herrian naturatik gertu bizi gara, edo hori sinestu nahi dugu, baina beganismoak zaila du hemen, ezta?

Bai. Animaliak erabiltzeko ohitura handia dugu eta alde horretatik antiespezismoak zaila du hemen. Gertatzen da gizartean dena nahasten dela. Oso garbi ikusi behar da ekologismoa, beganismoa, antiespezismoa... ez direla gauza bera. Ni ez naiz ekologista hitzarekin identifikatzen. Ekologistek normalean espezie batzuen egoera inporta zaie, baina antiespezista gehiago doa animalien erabileraren aurka, animalia guztien alde. Niri ez zaizkit soilik axola desagertzeko arriskuan dauden espezieak.

“Abeltzaintzaren atzean dagoena kolokan jarri bertzerik ezin dut egin, abeltzainarentzat animalia baliabide ekonomiko hutsa izaten delako”

Iruñeko Sanferminak pentsaezinak dira zezenik gabe?

Hemen ere gauzak aldatzen ari dira, talde batzuk eta peñak hasi dira, jada, gauza desberdinak antolatzen. Baikorra naiz eta uste dut gauzak aldatuko direla. Argi dut nik ez dudala alternatibarik eman behar. Zer dagoen gaizki, esaten dut eta kito. Eta alternatibarik ez balego ere gaizki dagoena kendu behar da gaizki dagoelako, besterik ez.

Zertan datza antiespezismoa?

Espezismoa espezieen araberrako diskriminazioa da. Adibidez, kasu honetan gizakiak bertze espezieak erabiltzen ditu bere mesederako bertze espeziekoak direlako. Esperimentazioan oso garbi ikusten da. Ezin dugu ulertu esperimentazioa gizakiekin. Guk bezala animalia anitzek nerbio-sistema nagusia dute eta, ondorioz, baita sufritzeko eta plazera sentitzeko gaitasuna ere. Hori da denok berdin egiten gaituena. Gaitasun horiek animalia bati bizitzeko eskubidea ematen diote, guri bezala. Gaur egun animaliak gehienbat esplotatzen ditugu jateko. Lortuko bagenu animalien industria hori desagerraraztea, arazoaren zatirik handiena desagerraraziko genuke. Animaliak produzitzen dituzten industriak produktutzat hartzen dituzte behiak, txerriak, untziak... Denak. Animalia horiek jaten dituztenentzat ere halakoak dira. Guretzat objektua dira eta onura ekonomikoa ematen digutelako erabiltzen ditugu, eta iruditzen zaigu edozein gauza egiten ahal dugula haiekin. Ez da beharra, negozioa baizik. Hamaika bideo dago sufrimendu hori erakusten, eta ikusi ez duena nahi ez duelako da.

Baina animaliek elkar jaten dute...

Bertze mundu bat da eta ezin da parekatu. Haienezat beharra da, guretzako ez. Guk bertze aukerarik dugu. Era berean, inuit batek animaliak ehizatu behar ditu bizitzeko eta ni ez naiz joanen esatera ez duela harapatu eta jan behar. Hori bertze errealitate bat da. Nire iritziz gaurko arazo nagusia industria da. Negoziorako erabilera. Eta ez dugu muturretara joan behar. Begano bezala askotan planteatzen dizkirate inoiz gertatuko ez diren muturreko egoera surrealistikak:

Deseroso

“Beganoa zarela esaten duzunean jende askok sentitzen du bere burua defendatzeko beharra. Ni beganoa izatea haienezat eraso pertsonal bezala hartzen dute. Ematen du horrek zalantzak sortzen dizkiola eta gaizki sentitzen dira. Halakoetan arazoa ez da nireia, haiena baizik”.

Ilunpean gordetako kalkuluak

"Itoizko urtegiaren eta ubidearen inguruko Pedro Arrojo irakaslearen txostenak hor daude. Nafarroako Gobernuak egin ez dituen edo erakutsi izan nahi ez dituen kalkuluak hor daude. Denbora erakusten ari da saldu zuten ideia ez dela inondik ere erreala. Garrantzitsua da gizarteak ikustea zer gertatzen ari den horrekin".

irudika ezazu munduan bakarrik zaudela eta aurrean txerri bat duzula, eta ez duzula bes-terik jateko eta zer egingen zenuke? Aspertuta nago horrekin, benetan! Gure begien aurrean egunero hamaika gauza gertatzen ari dira, aldatzea gure esku ditugunak, nik honetan zentratu nahi dut. Kontsumitzaileok izugarritzko boterea daukagu eta ez bagara zoologikoetara, zirkuetara, akuarioetara joaten, animaliarik jaten ez badugu zer-bait lor dezakegu.


Gaiz aldatuta, Itoitz urtegiaren inguruko erresistentzia borrokaz asko idatzi duzu.

Hurrengo urtean hamar urte beteko dira etxeak suntsitu zituztela. Tamalez horma hor dago baina Itoitz herria ez. Nik uste dut borroka horretan galdu dela anitz: jendeak bere historia zati bat, bere txikitako etxea, bere arbasoak lurperatuta dauden hilerriak galdu ditu eta Nafarroako Gobernuari oso merke atera zaio dena. Gainera oraindik ez da bukatu: hor dago Nafarroako ubidearen inguruan gertatzen ari den guztia. Jendea hasi da mugitzen azpiegitura horren aurka, ikusita zer dirutza gastatu den eta zenbat gastatuko den bigarren fasean. Nekazariak hasi dira esaten ubiderik ez dutela nahi izugarritzko inbertsioak egin behar dituztelako, errentagarritasuna ziurtatuta ez dagoenean. Borroka honek, halere, gauza on anitz izan ditu. Borroka moldea, errate baterako, oso aberasgarria izan zen.

Zure beste lan garrantzitsu bat intsumisioari buruzko liburua izan da. Desobedientzia zibilean espezialista, zeu ere desobediente?

Etxean ez naiz batere desobediente izan, baina nire modura ere banaiz. Zentzu batean beganoa izatea intsumisioa izatea da. Itoizko kontua hurbilagokoa nuen. Intsumisioarena ez nuen horren eza-guna eta behin hor murgildutakoan, harritu ninduen gauza anitz aurkitu nuen. Zenbat aurpegi, talde eta estrategia desberdin zuen bere baitan intsumisioaren mugimenduak eta nola lortu zuten irudi bateratua erakus-

"Itoitz urtegiaren borrokan anitz galdu da: jendeak bere historia zati bat, bere txikitako etxea... galdu ditu eta Nafarroako Gobernuari oso merke atera zaio"



Bidasoa ibaiertzean hartu ditugu irudiok, hots, Edurne Elizondoren txikitako jolasleku maiteenean.

tea gizartearen aurrean. Izugarritzko indarra izan zuten.

2001ean bazterrean gelditu zen soldaduska egin beharra. Egungo gazteek ez dakite soldaduska bera zer zen ere. Haien sugarra itzali zen?

Urte haietan gizon gazte guztiek egin beharreko kontua zen eta egoera horrek haien inguruko jendea ere hunkitzen zuen, beraz gizartearen oso zabaldua zegoen, oso helduleku ona zuen.

Tresna baliagarria izan zen armaden kontra egiteko. Gaur egun, aldiz, zailagoa da heldulekua aurkitzea. Masiboki ez da zalantzan jartzen, adibidez, armetan mundu mailan xahutzen den dirutza.

Orain zer duzu esku artean?

Mugimendu animalistaren inguruko liburu bat ari naiz prestatzen. Mugimendu hori zertan den hemen eta hemendik kanpo azaldu nahi dut. Egin ditudan bertze bi liburuetan bezala, honetan ere oinarria pertsonen testigantzak izanen dira. Ez zait horrenbeste interesatzen mugimenduaren historia egitea, baizik eta hor dagoen jendea ezagutzea eta galdetzea zergatik diren antiespezistak. ■



◦ Jorraketarik gabeko nekazaritza ◦

Iraultza ortuan: fuera golde-aitzurak!

“Zuen bekokiko izerdiz eskuratuko duzue eguneroko ogia” kondenatu omen zituen Yavehk Adan eta Eva. Geroztik, goldea eta aitzurra izan dira laborantzaren ikurrak. XX. mende bukaeratik, ordea, mundu osoko ortuzain eta lurginen artean bestelako ikusmoldea ari da zabaltzen: lurra irauli gabe haztea barazki eta laboreak. Lurrik ez urratu. Asko baratzegintza ekologikoan ari dira, baina horretara jotzen dute soro handien jabe makinadunek ere.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Argazkiak: Jean Marie Lespinasse

JORRAILLA izendatu genuen garai batez apirila. Eta hona non nekazari eta arlo horretako aditu askok landareen ustezko mesedetan aitzur-jorran aritzeari uko egiten dioten. Neolitikotik hona bederatzita mila urte gerriak hausten eman eta gero hau!

Berrikitan gaztelaniaz *El buerto más natural* tituluz Lizarrako La Fertilidad de la Tierra

argitaletxeak publikatu duen liburuan (jatorrizko frantsesez *Le jardin naturel*, Ed. Rouergue) Jean Marie Lespinasse agronomo eta baratzezain ezagunari utziko diogu laburbiltzen ideia: “Duela mende bat baino lehenagotik buruetan alderantzizkoa sartzen diguten arren, guk ez dugu lurra elikatzen honek landarea elika dezan. Lurra bere gisan bizi da,



Bi andre eserita Jean Marie Lespinassek Bordele inguruan daukan baratzean. Landareak altuera batean daudenez, haien parean daude jarrita: jesarrik ere erraz egin daiteke lan. Landare eta loreak nahasian daude, orbelez eta lastoz estalitako lurzoruan.

Zuzeneko ereintza soro industrialetan ere modan

Alor handietan garia, artoa edo soja egiten dituzten nekazariak gero eta gehiago ari dira zuzeneko ereintzan, frantsesez *semis direct* eta gaztelaniaz *siembra directa* esaten dioten teknikan. Horretarako, labore bat biltzean berehala ereiten da haren osagarria den beste bat. Esate baterako, argazkian ikusten den moduan: traktorearen gurpil ondoan ageri dira hilabete batzuk lehenago bildutako gariaren lastoak eta tartean berde koltza landareak; koltzak lurraren azala estalita atxiki du hilabeteotan eta makinak orain moztu edo zanpatu egingo du tartean berriro garia ereiteko.

Teknika hau erabiltzen dute lurjabe handiek oharu direlako hainbeste pesitizidarekin oinpeko fauna eta flora guztia birrindu ondoren gainera lurra goldatuz gero higadurak urte gutxitan pobretu dituela lurrok. Aldiz, goldatu gabe zuzenean ereinez etekin ekonomiko oso garbia ateratzen dute: lurzorua orekari hobeto eusten diote, herbizida gutxiago jaurti behar dute (belar txarrak nekezago sortzen dira estaliaren azpitik) eta koltzak edo beste lekariak ongarriak direnez abonotan ere aurrezten dute, gehi horiek ez zabaltzeagatik erregaitan aurreratzen dutena.

Landarezko geruza gaineko zuzeneko ereintza (*Semis Direct sur Couverture Vegetale*) bultzatzen dute

herrialde txiroekiko elkarlaguntza programa batzuek ere, bidenabar Frantziakoek. Elikadura arazoak dituzten herrialde gehienek higadura arazo handiak dituzte, lehorte handien ostean ekaitz galantak nozituz. Goldatu ez eta beti landare berdez edo orbel iharrez estalita dauden lurrek hobeto eusten diote urari, erregadio behar askoz txikiagoa dute eta nekazariei errentagarritasun handiagoa eskaintzen diete, lan neketsua kentzeaz gain. “Nekazari, nekez ari”? Ez derrigorrez.



CUMA ALLIANCE

ez da euskarri soil bizirik gabea. Bizi hau elikatzen dute landareek sortu eta gero bertan lagatzen dituzten organoek (adarrek, orbelek, fruituek, eta abar). Azken finean, bizia sustatzen du lurrak mantentzen dituen landare guztien egoteak eta aritzeak berak.

Baratzean nire preokupazio nagusia da lurreko bizia bere osotasunean kontuan hartzea: zizareak, bakteriak eta beste mikroorganismoak hondakin organikoak desegin, nitrogenoa finkatu eta lurra samur eta aireztaturik atxikitzen dutenak. Bizi hau da estimulatu behar dena, lurraren emankortasuna sostengatu eta indartzen duelako. Horregatik, ekosistema hau ez da aztoratu behar. Beraz, ez dugu lurra irauli behar, ez pilatu behar barazkien inguruan, ez eta ere lurreko landareak sustraitik atera behar”.

Lespinassek aitortzen du, baserritar-seme izanik, kosta egin zaiola gainera kentzea lurra goldatuz irauli eta eten gabe aitzurrez jorratzeko ohitura zaharra. Frantziako nekazaritza naturalean erreferenteak diren Claude eta Lydia Bourguignon agronomo eta enologoek flash hori bera aipatu dute *Le sol, la terre et les champs* (Ed. Sang de la Terre) liburu txit gomendagarrian: “Lurra jorratzeari uko egi-

“Jorratzeari uko egitea kultur txoke bat da nekazariarentzako. Goldeketan laborantzaren mito fundazonaletako bat da”

CLAUDE ETA LYDIA BOURGUIGNON

tea kultur txoke bat da nekazariarentzako. Goldeketan milaka urte daramatzagu, laborantzaren mito fundazonaletako bat da. Lurra bortsatu egin behar dugu, uste izan dute baserritarrek, ernaldutadain. Horrela uler daiteke laborarien artean zein bortizki baztertzen den *semis direct* (zuzenean ereitea) sistema”.

Semis direct, No-dig gardening, No till-gardening, Jardinner sans labour... Ortuak eta soroak lantzeko ideia honek ezaugarri komun berdinekin aldagai asko ditu. Batetik, jarduera oso ezberdinetan aplikatzen delako, batzuek baratze txikietan edo

permakulturan; gero eta gehiagok zereal alor zabaletan. Bestetik, aitzurrez gabeko nekazaritzara ailegatu direnak oso eremu ezberdinetatik datozelako.

Er iraultzea iraultzaile

Nekazaritzak Neolito arotik egin duen urratsik garrantzizkoena omen da lurra irauli gabe lantzea, hala diote Bourguignon senar-emazteek: “6.000 urte pasa behar izan dira nekazariak lurra zaintzen duen teknika bat asmatzeko”.

Nekazaritza ekologikoak salatu ditu industrializazioak pestizidekin eta ongarri kimikoe-



Ezkerrean, Jean Marie Lespinassek Bordele ondoko La Brède herrian daukan baratzeko txoko bat: adaxka txikituz estalitako zoruan tomateak, indabak, zerba, erremolatxa, kalendulak eta alpapa nahasian. Eskuinean, Lespinasse ortua kusten.

kin lurraren langintzari ekarritako kalteak, eta horiek konpontzen saiatu da. Baina beranduago iritsi zen lurraren goldaketaren eta jorraketaaren kritika, eta hau oraindik ez da behar adina zabaldu. Zergatik ez irauli eta jorratu lurra?

Lurra iraultzea lotuta dago gaineko azala belar txarrik gabe eta garbi mantentzearekin. Lurra iraultzen da ustez arintzeko, aireztatzeko, garbitzeko, gainean zabaldutako simaur eta ongarriak barruratzeko. Hortik asmo onez egindako lehenbiziko kaltea: haizea eta eurien mende biluzirik uztean lurrazalaren higadura sustatzen da. Neolitotik munduan zabaldu den teknika atzeratu horri egozten diote askok planetak dauzkan basamortuak eta galdu dituen lur on asko, Lurrak nozitzen duen gai organiko gabezia izugarria.

Goldatzean, bestalde, lurzoruaren organizatuta dagoen geruzak azpikoz gain jarri eta nahastu ditugu. Geruza bakoitzak dauka bere fauna, guk iraultzean suntsitzen duguna.

Baratzegintza nagia

Gero eta gehiago ikusten dira lastoz, orbelez edo adaxka birrinduz estalitako ortuak batean eta bestean. Baserri lanetan betidanik zailduak harriturik begiratzen diote asmakizunari, mesprezuz ez denean: baina zertan ari dira zorook?

Hasteko, baratzeara era natural horretan lantzen duenak ez du gehiago sartuko laiarik edo aitzurrik bertan, askoz gutxiago motordunik. Landareentzako aurreikusitako eremuak ez ditu ahal dela zanpatzen. Esan bezala, lurrazalean lasto edo BRF (zuhaitz adaxka birrindu) geruza atxikitzen du eten gabe. Hori ezean, lurrari elikatzen lagunduko dion laboreren bat dauka ereinda, gehienetan alpapa (luzerna), hirusta edo txirta bezalako landare lekadunen bat.

Landarezko geruza horrekin, azken finean, ortulariak lortu nahi du basoan dagoen lurraren antzekoa sortzea bere barazkientzako

Gaineko estaliak eragozten du ditxosozko *belar gaiztoak* ugaritzea, baina helburu askoz garrantzizkoagoa ere badauka: lurrazaleko gai organiko horrek desegin ahala elikatzen ditu inguru osoa osasun betean edukitzeko beharrezkoak diren bakteriak, onddo eta gainerako xomorro ugariak. Hauen oreka lortu denean, lurzorua berez elikatzen da, eta landareek ez dute bestelako ongarri beharrik.

Landarezko geruza horrekin, azken finean, ortulariak lortu nahi du basoan dagoen lurraren antzekoa sortzea bere barazkientzako. Oihaneko landare eta zuhaitzak ez dira elikatzen inoren simaurretatik, are gutxiago duela ehun urte asma-tutako ongarri kimikoetatik. Oihanak bere burua fertilizatzen du eten gabe.

Abantaila gehiago baditu irauli gabe eta estali organikoari esker lurzoruan flora eta fauna txikiak berriro ugartitzeak. Lurrak baldintza horietan hezetasunari askoz gehiago eusten dio, erauntsietan ura hobeto irentsiz eta, alderantziz, idorteari hobeto aurre eginez. Horrela, lurzoru baten bioaniztasunak ez duenez kasik zerikusirik larrugorritan eta sintesizko gai kimikotan itota daudenekin, bertako landareek gaixotasun askoz gutxiago nozitzen dituzte.

Oihan basatietatik ideia gehiago ere hartu dute Lespinasse bezalako baratzegintzaek. Esaterako, ez ezarri landareak espezieka pilatuta, ahalik eta gehien nahastuta baizik... elkarrekin tirria ez daukatenean, jakina, bai baitira txakurra eta katua baino elkarren etsaigo direnak, hala nola babak eta tipulak. Beste ideia bat: barazkien artean erein jateko ez baina landareok aberasteko balio duten espezieak; Lespinassek alpapa edo luzerna ereiten du edozeinen aldamenean, honek lurzoruan bere zainak sakonean luzatu eta ondokoei bere nitrogenoa eskaini diezaien.

Horrela antolatutako lurra, gizakiaren oinak gehiago zapaltzen ez duelarik, bera joango da arintzen, aireztatzen, gizontzen, zizareen eta gainerako moxorroen lan esker-gari esker.

Ez erauzi sustraiak

Oso esperientzia ezberdinetatik heldu dira nekazaritzan adituak jorraketarik gabeko jarduerara. Askorentzako aita fundatzailea Masanobu Fukuoka izan da, *Lasto izpi baten iraultza* liburu famatuaren egilea. Honen ibilbidea naturaren ezagutzak adina taoismoan oinarritutako espiritualitateak gidatu zuen.

Garai beretsuan, 1940eko hamarkadan, A. Guest delako batek *Gardening without Digging* liburuxka plazaratu zuen Britainia Handian, gaiari ikuspegi mendebaldarrago batetik helduz. Geroztik oso bizipen ezberdinetako baratzezain eta laborariak iritsi dira ez jorratzeko erabakira.

Permakulturaren oinarrietako bat da, eta jakina da ikur nagusitzat Bill Mollison duen pentsamendu korronte honek asko edan duela Fukuokaren iturritik. Ildo horretatik Emilia Hazelip katalanak Nekazaritza Sinergikoa aldarrikatu du. Horiekin batera nekazaritza ekologikoa, biologikoa edo organikoa ari diren asko ez jorratzearen aldekoak dira, ez ordea gehienak.

Beste batzuk agronomiatik heldu dira leku berera. Claude eta Lydia Bourguignon ere agronomoak dira, Jean Marie Lespinasse bezala. Hauen liburuetan nekazaritza ekologikoen printzipioek adina edo gehiago eragin dute laborantza industrialaren mugez eta kalteez ohartzeak.

Munduko soroen emankortasunak nekazaritzaren industrializazioarekin atzera egin duela egia den arren, gero eta aditu gehiagok auzitan jartzen dute askoz lehenagotik datorela malurra. Baso izan ziren garaietatik alorek daukaten bizia zaindu eta landu behar dela aldarrikatzen dute.

Lur barrenean dagoen bizia ulertu egin behar da estreina. Zoruaren geruza bakoitzak dauzka bere flora eta fauna, eta geruzen arteko trafikoa ari dira milioika eta milioika izaki, zizare, sator eta abar luzea. Hildako edo uztan moztutako landareen zainek ere elikadura handia daukate guztientzako, baldin eta errotik ateratzen ez baditugu.

Irakurle, ikusten duzularik baratze bat lastoz estalia, pentsa dezakezu ortularia alferra dela. Baina asmatuko duzu pentsatuz jakintsua izan behar duela, gutxiago eginez gehiago lortu nahi duena. ■



...ametsetan
bezala

**ATXASPI
HOTELA**

Bittiria, 24
Lesaka (Nafarroa)
T.: 948 637 536
hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com



ZIRTAK

Julen Galbiza

IDAZLEA

Perfekzioa (I). Lasarte

Idazten hasi naizen artikulu hau izango da inoiz idatzi dudan inperfektuena, badakit. Salba dezadan nire burua, esanez perfekzioari buruz hitz egiteak ez nauela obra perfektu bat egitera behartzen, bestela bada ere nik nahi izango nukeena.


Aspalditik neukan gogoia gai honi heltzeko; zehazki, urte dezentez medioetatik aparte egon ostean, berriro hasi nintzenen hau bezalako artikuluak idazten, nolabait irakurleen iritziekin enfrentatzen, eta beraz etengabe hasi nintzenen berriz ere nire testuak zalantzan jartzen, berri-dazten, leuntzen, zorrozten, ukitzen eta ukatzen. Ukutzen nituelako ukitzen nituen, eta ukitzen nituelako ukatzen. Laburbilduz, esan dezadan perfekzionista sendaezina naizela eta horrek etengabeko aldaketara naramala, ustez hobetzeko asmoz. Ustez. Zeren perfekzionismoa parkinson moduko bat da: iritziak eta ikuspuntuak etengabe mugitzen zaizkizu dantza urdurian, eta, azkenean, mugimendu eta zalantza hori hain da frenetikoia, ezen erabateko inmoibilismoa baitakar, blokeo totala, jarduera sortzailearen paralisia.

Gai honi buruz idazteko erabakia, baina, Manuel Lasarte hil zenean hartu nuen. Albistea jakitean, hari buruzko zerbait idatzi nuen arin-arin Facebooken, leizarrak eragiten zizkidan inpresio txiki batzuk aipatuz: bere seriotasuna, hitz neurtu eta zehatzen erabilera, eta taula gainean zuen ele-



INIGO AZKONA

Perfekzionismoa parkinson moduko bat da: iritziak eta ikuspuntuak etengabe mugitzen zaizkizu dantza urdurian, eta, azkenean, mugimendu eta zalantza hori hain da frenetikoia, ezen erabateko inmoibilismoa baitakar, blokeo totala, jarduera sortzailearen paralisia



irudia:
Antton Olariaga

gantzia. Ausardia faltagatik, eta gehiegi esatea zela iruditzen zitzaidalako, ez nuen perfekzioari buruzko ezer jarri. Hurrengo egunean, Jon Lopategiren hitzak irakurri nituen *Berrian*: “Bertsolari perfektu bat aukeratze-kotan, Lasarte aukeratuko nuke. Goxoa kantaeran, perfektua neurrian eta erriman, euskara sekulakoa... gehiago ezin zitekeen eskatu. Perfekzioa zeukan euskararen alde-tik eta teknikaren aldetik”. Poztu nintzen, norbait ausartu zelako perfekzioaren langa non zegoen esatera, eta, batez ere, gaztetan Lasarteren kaseteak entzuten nituenean sentitzen nuen txundidura hura izendatzeko modua badudalako orain: hura zerbait perfektua zen, artean hainbeste ez nekien arren.

Gutxi aritu izan nintzen gaztetan bertsotan, eta aritutako hori, txarto. Nerbioak jota, ezin ideiak behar bezala azalduta, neurrian ezin kabituta, beti motz edo luze, praka estuegietan sartu nahi eta ezinean, inperfekzioa heltzeko ametsen beti. Perfekzioa heltzea beste batzuen lana zen, nire ligatik aparteko zerbait. Sufrimendua zen hura, hitz eta esaldi perfektuen aldatzeko haren erdian agertzea, jendea zuri begira. Eta uzten duzu bertsolaritza, eta pasatzen zara idaztera, finean material bera erabiliz baina beste patxada batekin, eta hasieran uste duzu hor bai, hor joko duzula noizbait perfekzioaren tontorra, hitzak zure eskuetan daudelako eta ez zure ahoan, baina ez: 10-8ko neurririk gabe, errimarik gabe, gaur bezala 3.400 karaktereen ohatze erosoan etzanda egonda ere, ezin perfekzioari buruz ganoraz hitz egin. Eta entzun nahiko zenuke Manuel Lasartek nola kantatuko liokeen perfekzioari, nola definituko zuen gaitz jasan ezin hau, nola esango zuen, bisaje triste harekin, berak izugarri sufritzen zuela perfekzioaren aldarean. ■





ERRedAKzioan ITZULIRik

GERTRUD eta BIOK
POZEZ TXORATZEN
ITZULI GARa OPORRETATIK:

2 Aste Baskelanden,
eta hango GOBERNUAK
EUSKARAREN GAITASUN-AGIRIA
OPARITU EGIN DIGU ... !

Gero espainiera
rena eskatu dugu,
baina SERIOTASUNA
Galdatu digute
...



Xipri Arbelbide

APAIZA ETA IDAZLEA

Gaurko esklaboak

Martxo erdian, egunkarian irakurtzen nuen nola Nafarroan gelditu dituzten prostituziotik bizi ziren hamahiru gizon. Brasilgo toki pobreenetako neska polit zenbaiti lana hitzeman Espainian. Ongi pagatua. Zaragozako aireportuan hartu. Bidaia saria eskatu. Dirurik ez izanez, zorra pagatzeko, *Club de alterne* batean sartu eta hor hasi "lanean". Hamabi oren segidan egunero, komunitara joateko ahala bera ukatzen zietela. Batzuetan egunean apairu bakar bat baizik ez zuten. Klubetik ez zitezkeen atera ez bazen konfiantzazko norbaitek "lagundurik".

Gauza batek harritu nau artikulua irakurtzean. Gazte bat Molotov koktelak botatzen hartzen badute, biharamunean prentsan agertzen dira honen izen, abizen, herri eta guztiak. Kasu honetan ez da izen bihirik agertu. Molotov koktel baten botatzea, neska zenbaiten esklabo egitea baino huts handiagoa ote da? Egia erran, esklaboaren trafikoa XXI. mendean debekatua den, dudak badituzte.

Gizon horiek gelditu baldin baditu poliziak, iduri luke baietz. Baina ikusi dut *Club de alterne* batean dituztela gelditu. Nire zozon badakit zer diren klub horiek. Bestek bezala badakit, neska zenbait beren gustuz sartzen badira hor, gutiz gehienak esklaboak



DANI BLANCO

Ez niri galda zer den
putetxe eta klubaren arteko
diferentzia. Erosi bezala
saltzen dizuet. Baina
datu horiek erakusten
dute, mundu hori oso
ondo menperatzen dutela

direla. Brasilgo neska horiek iduriak. %90 irakurri dut nonbait.

Poliziak badaki non dauden. Duela dozena erdi bat urte, Gasteizko legegai baten kariatara *Berriak* bete bi orrialdeetan ikusi dut mundu hori biziki ontsa ezagutua zela. Araban, adibide bat hartzeko, 342 neska dira (ez 341 edo 343), 30ek karrikan bilatzen dute bezeroa. 102k Gasteizko putetxeetan, 180k herrietako klubetan, 30ek etxebizitzetan. Ez niri galda zer den putetxe eta klubaren arteko diferentzia. Erosi bezala saltzen dizuet. Baina datu horiek erakusten dute, mundu hori oso ondo menperatzen dutela. Orduan galdera bat: gehienak esklaboak izanez, nolaz ez ditu poliziak denetan libratzen Nafarroan bezala?

Frantziako lehendakari izateko zen Dominique Strauss-Kahn (DSK) saltsa horietan sartua baita, *Le Monde* egunkariak idazten zuen nola, jaun horren eskuetan izan neska batek jujeari erran dion, haren gustuko zerbait ez egin nahi eta, beste gizon batek ukaraietarik hartu duela eta, nahi ala ez, DSK utzi behar izan duela bere fantasmen asetzera. Esklaboez baliatzen diren "bezeroak", ez dira hutsean?

Lan ala sexuaren esklabo, haur, emazte eta gizon, gure esklaboak 12,3 milioi dira munduan OITren arabera. ■



TXANDAN

Amatiño



Nafarroako Erresumak hainbat mendetako burujabetza galdu zuen 1512an, armetan galdu ere. Eta ez dago batere arrazoirik galera hura nafarren gogoz kontra izan zenik ukatzeko. Bostehun urte geroago bada mendeurrena ospatu nahi duenik. Baita gaur egun agintean dauden ospakizun otzana zorrotz salatu nahi duenik ere. Dena den, auskalo orain bostehun urteko nafarren borondate politikoa eztabaidatzerik ote dagoen ala ez, baina egungoa ez behintzat.

Beharbada, batzuen eta besteen jarreraren arteko

**Nafarroa
1512-2012**

benetako eztabaida besterik da, alegia: egungo egoera nafarren gogoko dela uste dutenek nahi lukete oraingoa ordura eramanez; eta ordutako garaiko nafarren gogoko ez zela izan diotenek, berriz, nahi lukete ordutako hona ekarri.

Biak ari dira nolabait iruzurretan. Baina beldur naiz bostehun urteren bueltan orainak, oro har, ez ote duen iraganak baino gehiago balio. Izan ere, orain bada 1512an Nafarroan ez zenik: hauteskundeak. Eta hauteskundeak, kirolek ez bezala, parte hartzeaz gainera, irabazteko dira. ■



Gorka Urbizu

MUSIKARIA

Konposatzen



artu duzu gitarra. Ilunpetan haztamuka ere badakizu sei soka besterik ez dituela. Ahor zure koadrilateroa, borroka hastear da. Jo duzu betiko akorde segida. “Betikoegia”

iruditu zaizu, beste behin. Kanpoan eguzki ideala irten da, pertsiana irekiz gero suma dezakezu. Umeen kalaka leihotik. Eskolatik atera berri dira, plazan jarraitzen du ikasketak, hau ez da behin ere gelditzen. Baloia eta sokasalto. Hizkuntza bat eta hizkuntza bi. Unibertsala da zure herria. Edozein.

Erabateko sosegutik bi maila beherago zaude, ezinegon dosi aproposa zerbait (taxuzkoa) idazteko. Raka-raka. Gitarra nagai xamar, behartu egin behar. Ingelesorde hizkuntzan melodia saiakera bat. Broken English, euskara hautsia. Protokanta. *Little dreams* dirudien zerbait leloan. *Little dreams*, euskaraz *Nirekin* izan liteke. Antzeko soinua dutela iruditzen zaizu, silaben ahairea-eta. Apuntatu nonbait. Zure sakelakoan hori ere egin daiteke. Bidenabar, txekatu korroa, 52 minutu igaro dira jada. Spam, spam, spam. Elkarriketa, 8ak aldera deituko dizute. Kontzertua nahi dugu herriko festetan, ez dugu udalaren diru-laguntzarik. Zure ziztada behar dugu. Aspaldi zutaz ezer jakin gabe. Laster gmail ordaindu egin beharko



Kontzertua nahi dugu
herriko festetan, ez dugu
udalaren diru-laguntzarik.
Zure ziztada behar dugu.
Aspaldi zutaz ezer jakin
gabe. Laster gmail
ordaindu egin
beharko da



da. Bidehuts-en disko berria. Ticketmaster. Ostiralean 5etan soinu-froga.

Koadrilaterora bueltan. Zejilla hartu duzu, zenbaitetan tonoa apur bat aldatzeak ikuspegi erabat diferentea eman diezazuke, gertatu izan zaizu. Metafora politiko erraza etorri zaizu burura, baina laster baztertu duzu. *Little dreams, nirekin*. Deus guti. MacBook-a ireki eta Big Bang Theory-ren kapitulu berria kargatzen jarri duzu. Megaploadek badu ordezkorik. 20 minutu baino ez dira, barreak on egingo dizu. Bitartean, Twitter, Gantzarainen zutabea, El Roto... eta zergatik ez, onanismoaren buffet asketik zerbait, pintxo azkar bat: For Whom The Bell Tolls? Linares, Russel... Komunera gero. Ramon Agirreren elkarriketa *leitzen ilustratzen zera*. Arrazoi dauka, urria da euskal fikzioa. Tira, kafe bat, di-da, eta lanera berriz. Hor nonbait behar du kantuak, hor nonbait... baina non?

Biharko uztea erabaki duzu. Laster itxi-ko dizute okindegia eta nahikoa tristea da bakarrik afaltzea, ogia deskonjelatzen hasteko. Zerbait entzun nahi duzu, ordea, kalera irten aurretik. Play. The Jayhawks. Zure betiko akorde segida da. Pentsatu eta esaten ez diren gauzak. *So Blue* irten zara etxetik. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Berrogei urtetik gorakoa da ordutik honakoa. Urte hartan ere Iruñera deitua zen, eta kotxea etxe gutxitako ondasuna zenez, bezperatik joatea genuen seguruena manifestan parte hartu nahi bagenuen. Ez ginen bakarrak izan, noski, autobusa edo tren erabili genuenak. Gu, suertekoak izaki bagenuen bertan ostatu. Gogoan dut *Jesuitetan* larunbateko hondar meza bukatu eta bertan gaupasa egin nahi izan zutenek poliziarekin izandako arazoa, lasterka aldegin eta beren buruak non sartzerik izan ez zutenak, apaizek gobernadorearen aginduz eliza gako-tu zietelarik. Gazteluko Plazan bildu ginen eguerdirako.

Aberri Eguna

Inguruko tabernak hutsik, ezagun zen manifestaria nor zakurra zein. Mixel Labeguerieren *Gu gira Euskadikok* bildu gintuen multzo borobilean kioskoari bueltaka hasi ginenean. Hasi orduko balkoi batetik *Vivaespaña* hasi zitzaizkigun piper-potoa zabal-zabalik zuten batzuek. Haiekin batera *Grisek* egin zuten plazara, eta inguruko karrikak korrika ezagutu genituen. Aurtengoa prozesioa izan dugu gure indarraren erakusle. Tabernak lepo eta tabernariak bapo. Nago, egingo nuke, hauek bisitarien estatistika turistikoan sartuko gaituztela. Bai, aldatu da egoera, hobetu dugu gurea. ■



BERTSO BERRIAK

Imanol Lazkano

Hunkitu ninduen bertso sail bati



DANI BLANCO

I

Erditu den ama batek
kontatu du abentura,
ezin ahaztu zaio nonbait
pasatako une hura;
bere soina lehertzear da
iztarretan behera ura,
zirrargarria guztiz
kontatu duen modura.
Nahiz eta amarentzako
bilakatzen den tortura,
betitik haurrak horrela
etorri dira mundura;
ez dago beste biderik
horrelaxe da natura,
maiteminarene jolasak
pasatzen duen faktura.

III

Mundura haurrak sortzeko
dagoen bide bakarrak
amari ikusarazi
izan dizkio izarrak.
Hainbeste estutzen baitu
bizitzaren atzaparrak,
galtzen ditu ur ta odol
mailatzen ditu giharrak.
Baina amarengan dauden
neurritz kanpoko indarrak
gainditzen laguntzen dio
pasatako une txarrak;
hain bortizki jaulkitako
malko eta deiadarrak.
Ahaztuerazten dizkio
haurtxoaren irriparrak.

V

Uxue txalotzen dugu
zuk emaniko pausoa,
zure haurrari isuri
zamarengandik jasoa;
dena ez dezu izango
erreza ta erosoia,
baina borondate onak
gainditzen du arazoa.
Lehengoa maitasun ur ttantta
orain denez itsasoa,
beregana jarriko dezu
zure izate osoa.
Ziur izango zerala
ama xamur ta goxoa,
izenek eta izatez
egi-egizko usoa.

II

Jolasaldi polit hartan
isuritako hazia,
bederatziz hilabetez
erraietara josia;
amagai berri batentzat
egoera berezia
soinean ondoeza
tapatxararen gabezia.
Hau nola aterako da
da galdera nagusia,
gaitzerdi halare ongi
irteten bada guzia;
nahiz eta zoriontzeko
izaten den notizia,
gozamen ta sufrimendu
nahasketa da bizia.

IV

Nerabezaroko dama
polit ta pinpirin hari.
Iltaran badatozkio
garraztasunak ugari.
Hala ere tristurarik
ez zaio inoiz nabari,
maitasun ta ama sena
baititu beti gidari.
Guztiontzat ama dugu
doan jasotako sari,
zutik eutsi ohi diona
sendiko bizi pozari
nahiz eta geronen ama
goraipatzen inoiz ari.
Inork ez daki zenbat zor
dion norberak amari

VI

Amaren goraipamenak
lehen ere egin dira sarri,
aita ere ez daiteke
senditikan at ezarri;
badakit asko laguntzen
dionzuela elkarri,
lan garrantzitsu horretan
bakoitza da osagarri.
Ez ahaztu sendia dela
herriarentzat oinarri,
oraina eta geroa
lotzen dituen lokarri;
haurrak sortzeko makina
martxan duzuenek jarri,
herriak behar ditu-ta
haurtxo gehiago ekarri.



DOINUA: Habanera



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

Potemkin zine zikloa Hausnarketarako korazatua

Komite Internazionalistek Potemkin zine zikloa antolatu dute Bilbon, eta hala, zinemagintza ezkertiarra eta kritikoa ikusteko parada eskaintzen da hileko azken igandeetan, lehen Gatazka Gunea zen aretoan. Autore zinea nagusi, eskainiko dituzten filmek kritika sortzeko eta hausnarketarako balio dutela diote.

MYRIAM GARZIA

SERGEI EISENSTEINEK 1925 urtean egindako filmeko itsasontziaren izena jarri diote zine ziklo berriari, Potemkin, harekin batera sortu baitzen propagandarako tresna gisa balio zezakeen zinemagintza. Hark erakutsi zuen boterearentzat ez ezik, herriarentzat ere erabilgarria zela zinema, iraultzarako tresna izan zitekeela. Gontzal Martínez de la Hidalga Komite Internazionalistetako kideak eta Potemkin zine zikloaren arduradunak azaldu dizkigu ekimen honen nondik norakoak. “Ez dugu nahi izan Gatazka gunea zena bere horretan uztea: lokal hau mitikoa da Bilboko Zazpikaleetan, eta horrela izaten jarraitzea nahi dugu. Ez dugu nahi hainbeste urtean esanahi berezia izan duen aretoa ohiko denda bilakatzea”.

Egoitza berriaren kontua alde batera utzita, zineaz hitz egiten hasi gara. “Aspalditik genuen zinema kritikarako tresna gisa erabiltzeko asmoa. Botereak betidanik erabili izan du bere diskurtsoa zabaltzeko eta manipulazio tresna gisa, baina beste aldetik ere, botere horri aurre egiteko zinemagintza egin duten mugimenduak izan dira historian. Diskurtso menderatzaileari aurre egiteko ere erabili izan da”. Martínez de la Hidalgak egun aurki daitezkeen zinemagintza mota desberdinen adibideak eman ditu, “Hego Amerikako Zinemagintza berria edota Kubako Zine eskola... Hausnarketarako eta kritikarako tresna gisa ulertzen dute zinema; are gehiago, gaur egun kontsumitzen ditugun filmak, ohiko aretoetan pantailarazten direnak, entretentitzeko eta manipulatzeko helburuaz egiten direla kontuan edukita. Zinema komertzialean ere baloreak zabaltzen



Sergei Ensteinekin 1925ean zuzendu zuen *Potemkin korazatua* eta izen hori baliatu dute Komite Internazionalistetako kideek Bilbon martxan jarri duten zine zikloari izena jartzeko.



POTEMKIN ZINE ZIKLOAK UTZIA

baitira. Batzuetan mezuak argiak dira, baina beste batzuetan ez, ezkutuan daude”.

Zine alterbatiboa, ezkertiarra, kritikoa eskainiko dute beraz. Filma ikusi, gero zine foruma egin eta kafea edota tea eta gailetak hartzeko aukera, gustura eta modu erlaxatuan. “Eztabaidarako leku atsegina izatea nahi dugu” azaldu du Martínez de la Hidalgak. Programazioa urtarrilean hasi zen, Costa-Gravrasek 1969an Greziako diktaduraren inguruan egindako Z filmarekin. “Egun Greziak bizi duen egoera eta kapitalismoaren kontrako borroka ulertzeko erabat baliagarria da. Hala ere, beti saiatzen gara eskainitako filmak balio artistikoa izan dezan, bai baitago intentzio oneko zinemagintza ere, baina balio artistiko txikia duena. Eta guretzat garrantzitsua da hori ere edukitzea, halako filmak ikusteko aukera gutxi dituelako jendeak”. Aurreko hilabetean *Aljerreko bataila* filma eskaini zuten. Frantziako kolonialismoaren aurka abiatu zen Argeliaren askapen borroka azaltzen du Gillo Portecorvoren lan horrek. “Hori ere egun arabiar herriek dararmaten borroka ulertzeko baliagarria da, Europako potentziak eta AEBak, orduan legez, inperialismoaren tresna berdinak erabiltzen ari baitira”. Martxoaren 8ko aldarrikapen egunarekin lotuta berriz, Margeritha von Trotta zinemagile feministaren *Ahizpa alemaniarra* filma ikusi ahal izan zen Potemkin zine zikloaren baitan. “Orain arte, Potemkinen pantailaratutakoak sariak irabazi dituzten filmak izan dira, kalitatezkoak eta errekonozimendua jaso dutenak. Publikoaren aldetik ere

Orain arteko saioetan 50 bat lagun bildu dira batez beste. “Espero dugu kopuru hori denborarekin haztea” azaldu dute antolatzaileek.

“Beti saiatzen gara eskainitako filmak balio artistikoa izan dezan, bai baitago intentzio oneko zinemagintza ere, baina balio artistiko gutxi duena”

**GONTZAL MARTÍNEZ DE LA HIDALGA
POTEMKIN ZINE ZIKLOKO
ANTOLATZAILEA**

harrera ona izan dugu, 50 bat lagun batez beste etorri dira, adin guztietakoak. Hala ere, espero dugu kopuru hori denborarekin haztea” azaldu du Potemkineko arduradunak.

“Zinemagintzaren hizkuntza oso baliagarria da formakuntzarako, eta erraz ulertzen den hizkuntza dugu, esfortzu txikia egin behar da, eta horrek erakargarriagoa egiten du, emozioak sortzeko duen gaitasunagatik. Ohituta gaude ikus-entzunezko hizkuntzeta- ra, eta badirudi eskatzen dugun zerbait dela. Gainera egun teknikoki erraza eta merkea da”.

Hurrengo hilabeteetan kalitatezko film gehiago ikusteko parada izango dugu, beti ere jatorrizko bertsioan. “Saiatu izan gara azp tituluak euskaraz izan daitezen baina bereziki zaila da film hauen kasuan. Hala ere, batzuetan euskarazko azp tituluak lortu ditugu eta saiatzen gara euskara izan dadin hizkuntza nagusia, bai filmetan bai zine forumean”.

Apirilaren azken igandean, Rosselliniren 1945eko *Erroma, hiri irekia* eskainiko dute, hilaren 25ean Italian egiten den faxismoaren aurkako egunaren harira. Komite Internazionalistetako kideak esplikatu due- nez, beraien asmoen artean dago pelikulen bitartez memoria historikoa lantzea ere. Hartara, maiatzaren lehenarekin lotuta Warren Beattyren *Reds* filma emango dute. “Memoria historikoa ez bakarrik gogoratzeko, egunera- tzeko baizik, historian gertatu diren gertaerek gaur egun garena ulertzeko balio dezaketelako, egun egiten dugunak etorkizuna baldintzatuko duen moduan”. ■



Literatura

Urrezko Biblioteka digitalaren alde

Elkar argitaletxeak iazko azaroan Urrezko Biblioteka saila jarri zuen martxan, 1990eko hamarkadatik Literatura Unibertsala bilduman publikatutako liburu deskatalogatuak berriz ere merkaturatzeko. Jarraian kontatuko duguna joan den mendeko argitalpen politikaren historiatxo bat da.

GORKA BEREZIARTUA

LITERATURA UNIBERTSALA bildumako liburuak zergatik dauden deskatalogatuta esplikatzea tokatzen da aurrena. Durangoko Azokan jakin nuen duela urte bi edo, Ibaizabalen standera hurbildu nintzenean, sailean argitaratutako titulu baten xerka –editorial horrek kaleratu zituen bildumako hasierako tituluak; gero Alberdania-Elkar tandemak hartu zuen lekukoa—. Ez zeukatela esan zidaten eta ez, preseski, publikatutako ale guztiak saldu zirelako. Antza, liburu horiek ez zeuden jada mundu honetan, gillotinatuta egin zituzten, paper-ore bihurtu, biltegian urte luzez hautsa hartzen eduki ondoren. Ray Bradburyren *Fabrenheit 451*eko eszena bat etorri zitzaidan gogora –exageratzeko berezko ohitura daukat—. Baina pena hartu nuen, hori da egia, itzulpenak egiten hainbeste izerdi eman ondoren debaldeko lana izan zela pentsatuta.

Balio literario handikoak dira, baina ez bestseller izateko asmoz argitaratutako liburuak; atzerriko hizkuntzetatik euskarara ekarritako obra klasikoak gutxi saltzen dira eta Eusko Jaurlaritzak 1989an EIZI Erekin sinatutako hitzarmena baino lehen, argitaletxeek mohikanotasunez publikatzen zituzten tankerako lanak, dirua galtzeko arriskuarekin, euren betebeharrak zela pentsatuta. 1990eko hamarkadan aldatu zen kontua aipatu hitzarmenari esker eta gaurdaino 150 obra itzuli dira sailaren barruan.

Bestelako problemak sortu dira ordea, eta ez da txikiena izan, liburuak merkaturatzeko

modu egokirik aurkitu ez izana. Aurreikusitako tiradak ere handi samarrak ziren, artikulua ilustratzen duen Edgar Allan Poeren *Kontakizunak* lehen edizioan 2.000 ale ateratzen ziren inprimategitik adibidez, nobedade arrunt baten bikoitza gutxi gorabehera. Eta saltzen ez. Eta biltegian pilatzen ari. Eta azkenerako, stock guztia suntsitu beharra.

Pentsa liteke beraz, Urrezko Biblioteka martxan jartzea pozteko moduko notizia dela, inongo dendetan aurki ezin zitezkeen obrak berriz ere irakurlearen esku jarriko direlako. Eta bada poztekoa, baina ez hainbeste; orain artekoa ikusita, leku berera iritsi eta berriz ipurdiz gora jausteko arriskua sumatzen baitut apustu horretan. Gainera, badaude alternatibak. Ez da txarrena Pentsamenduarien Klasikoak bildumarekin egindakoa: argitaratutako 130 tituluetatik ia denak www.ehu.es/ehg/klasikoak helbidean doan deskarga daitezke. Zentzu handiagoa ikusten diot horrelako zerbaiti, gutxi salduko direla jakinda paperean berriz argitaratzeari baino. Klaro, baina horretarako XXI. mendeko ikuspegia eduki behar. Badakizue, Internet eta gauza horiek.

PS: Literatura Unibertsala bildumako lan batzuk badaude sarean dagoeneko, www.armiarma.com/liburu-e helbidean. ■



Liburuak

KRITIKA

Zaldi urdin bat margotu zuen artista.

Testua eta irudiak: Eric Carle.

Itzulpena: Manu López Gaseni

Pamiela-Kalandraka. 27 orrialde. 15 euro.



Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle

Askatasun ederra

OSO TESTU GUTXIKO liburu baten aurrean gaude. Egileak dioena, gainera, ideia bat besterik ez da, artista dela eta kolore bitxietako animaliak margotzen dituela. “Ni artista naiz eta margotzen ditut...”, horrela hasten da liburua, eta artista bera ikus dezakegu oihal batean margotzeko prest. Ondoren artistak eginiko margo ugari erakutsiko zaizkigu bi orritara eta kolore biziz: zaldi urdina, krokodilo gorria, behi horia, untxi arrosa, lehoi berdea, elefante laranja, azeri morea, hartz polar beltza eta, azkenik, koloretako tantodun astoa.

Komentario hau irakurtzen ari den irakurleak ideia bat egin dezake liburura hurbildu aurretik, pentsa dezake animalia horiek fantastikoak direla, baina egia esan, nahiko errealistak dira, hori bai, kolore berezi samarra dute. Errealismoa hausten duten margoak dira; zaldia trostan ikus dezakegu, ileak airean eta bizi-bizi; zaldia, baina, urdina dugu... eta nork ezagutzen du, nork ikusi du zaldi urdinik?

Eta hala ere, liburuko azken esaldia oso argia da: “Artista fina naiz ni”. Horixe diosku margolariak guri begira dagoela; hasierako iruditik, margotzen hasi behar zen hartatik, aldaketa txiki batzuk eskainiz: arropak kolorez zikindurik ditu, lurrean ere pintura arrastoak ageri dira, koloreak dauden mahaia ere zikindurik dugu... eta atzeko oihalean zaldi urdin bat ageri zaigu. x

Eric Carle nahiko egile ezaguna da haurrentzako albumetan –honen aurretik ere badu baten bat euskaraz argitaraturik–, nazioartean nahiko izen handiko ilustratzailea dela esan dezakegu, eta oraingo honetan, Franz Marc omendu nahi izan du; eta hain zuzen oso baliagarria da eskaintza hori, baita liburu amaieran bai Eric Carle bai Franz Marc pintoreei buruz ageri den informazioa, liburuko askatasunaren eta berrikuntzen aldeko aldarrikapenak ulertzeko. Franz Marcek kolore bizi eta ezohiko bidez animaliak margotzen zituen eta nazien jazarpena izan zuen, arte degeneratua egitea leporatuta, bere artea debekaturik egon zen.

Eric Carlek Franz Marcen *Zaldi urdina* (1911n margotua) errebindicatzen du obra honen bidez, arte horren askatasuna, edertasuna... eta hori egiteko gaur egungo haurrei eta helduoi liburu bat eskaini digu margolan bitxi, eder eta askez osaturik. ■



Arabian sortu ote zen bizkaiera?

Hainbat iturritatik edan du Koldo Zuazok *Arabako euskara* liburua osatu ahal izateko: toponimia, azkenaldian agertutako lekukotasun idatziak, baita Araban hitz egiten den erdararen euskarak utzi dituen arrastoak ere. Eta horiek denak landu ondoren, hipotesi bat plazaratu du Elkar argitaletxearen eskutik publikatu den liburu honetan: zentzuzkoena




Arabako euskara.
Koldo Zuazo.
Elkar.
324 orrialde.
24 euro.

dela pentsatzea, Mendebaldeko euskara orain dela mila urte inguru sortu zela Gasteizko hirian, eta gero, handik hedatu zela iparrerrantz (Bizkaia), hegoalderantz (Burgos, Errioxa) eta ekialderantz (Nafarroako eta Gipuzkoako eskualde batzuetara). Gure hizkuntzaren historia ezagutzeko datu baliagarriak. ■

Nikola Teslaren bizitzatik abiatutako fikzioa

Jean Echenozek atsegin du pertsona eza-gunen biografietatik abiatuta fikziozko nobelak idaztea. Horren lekuko dira aurretik euskaraz irakurri ahal izan genituen *Ravel* (Maurice Ravelen bizitzan oinarritua) eta *Lasterka* (Emil Zátopekenean). Oraingo honetan Nikola Tesla ingeniariaren bizitzatik abiatu da; liburu honekin amaitzen du “bizitza alegiazkoen trilogia”. X izpien, fluoreszentearen eta korrante alternoaren asmatzailea izan zen Tesla, besteak beste. Gerardo Markuletak itzuli du frantsesetik eta Meettok argitaletxeak kaleratu du –Donostiako editorial horrek publikatu ditu euskaraz Echenozen aurreko lanak ere–. ■

Tximistak.
Jean Echenoz.
Itzulpena: G. Markuleta.
Meettok.
158 orrialde. 15,9 euro.



Diskoak

IKER BARANDIARAN



Hitzetik.
Hesian.
Oihuka.
Iraupena: 39'35'.
11 euro.

Garai gogorrei, barneko irribarrea

SAKANAKO taldeak oihartzun gero eta handiagoa dauka eta dagoeneko laugarren diskoa kaleratu du, azken hau Elkarren Oihuka zigiluarekin. Urte hauetan guztietan ez da askorik aldatu sona eta ikusle ugari eman dizkien formula: hardcore melodiko edo punk-pop oinarri bizi-bizia, neska-mutil ahots konbinazio jostaria eta haizezko instrumentuen bultzada nabarmena. Hala, punk zipriztinak dituen rock bizia, ska eta

patxanga mezu zuzen eta indartsuekin batzen dira kasu gehienetan. Hala ere, partaideek egungo garai gogorrei aurpegi positibo eta eraikitzaileagoekin aurre egitea erabaki dute. Gainera, espetxeak, drogak eta bestelakoak hitzetan presenten badira ere, badaude pertsonalagoak diren bestelako pasarteak ere, sentimentaloak direnak.

www.hesian.net

Hesian

«Hitzaren garrantzia aldarrikatu nahi dugu, azken aldian krisian dago-eta»

Zer dauka Hesianek *Hitzetik*?

Musikaz aparte, guzti-guztia. Barrenetik idazten dugu eta hitzei berebiziko garrantzia ematen diegu. Hitzaren garrantzia aldarrikatu nahi dugu, azken aldian krisian dago-eta.

“Iragan hotza, garai arrotza” / “Etorkizuna, gailur urruna”. Nolakoa da oraina?

Askoz baikorragoa da. Baina, ez dugu galdu kutsu malenkoniatsua, bestela ez ginatke gu izango!

Oso disko positiboa da...

Bai, baikortasuna argi islatzen da. Garaiak aldatu egin dira, egoera sozio-politikoa, norberaren esperientzia pertsonalak... Lan honetan kanta pertsonalek edo sentimentuak adierazten dituztenek pisu handia daukate.

“Argia”, “Irribarrea”, “Iragana” eta “Urruntasuna” askotan agertzen dira hitzetan...



Iragana zein garai hartan bizitakoak barnean ditugu eta baliagarriak dira gaur egun garena izateko, hortik ikasteko. Ikasi, eta etorkizunari helitzeko gogo handiak ditugu. Ez ditugu inoiz itxaropena eta barneko gogo eta nahiak galduko!

Zer daukagu ikasteko Boiseko euskaldunengandik?

Munduko edozein bazterretan gaudela, euskara dela euskaldun egiten gaituena eta euskararen eta gure herriaren etorkizuna euskaldunon

eskuetan dagoela. Izugarria da Boiseko jendearen konpromisoa, ikastola aurrera eramateko ahalegina.

Sua eta bihotzari esker gai gara luzaroan borrokatzeko?

Noski. Abestiak argi islatzen du taldearen ibilbidea eta izaera, eta oztopo guztien gainetik aurrera egin dugu, beti kementsu, borrokatuz eta lan handia eginez. Zortzi bihotz potente ditugu, etaugar horiek ez dira erraz itzaliko.

“Bukaera ez da existitzen, agurrak milaka daude”; “Lurrera jausi eta behin eta berriro altxatu”. Disko honek asko dauka aurrera egitetik, ezta?

Bai. Askok dira bide luze honetan jasan ditugun eta jasango ditugun trabak eta kolpeak, baina, hala ere, beti aurrera etorkizunari begira eta irribarrearekin. ■



Ezpalak

JON TORNER

Baigorriko Kulturaldiak Nafarroaren konkista du ardatz

EKE



ABIAN DA jada Basaizea elkartek antolatutako Baigorriko (Nafarroa Beherea) hilabete kulturala. Ekimena apirilaren 29an amaituko da, Nafarroaren Egunaren ospakizunarekin. Urtero legez, bazkaria, musika eta dantzak izango dira egun horretan. Nafarroako konkistatan 500. urteurrena dela eta egitarauaren barruan garrantzia berezia eman diote gertaera horri. “Eskal jendartean euskal kulturak betetzen duen leku murrizak” bultzatuta, hilabete kulturalarekin euskal kulturari “bizia” emateko helburua dutela adierazi dute antolatzaileek.

Egitaraua:

- Apirilaren 21ean eta 22an: Nafarroan Bizi eguna. *Baxe nafartarren eta nafarren arteko xubiak eraikitzen*. Etxarri-Aranatz eta Baigorri aldeko ikastola eta herri-tarren arteko harremanen lehen urrats konkretuak emango dira. Bi egunez hitzaldiak, herri kirolak, bazkariak, kontzertuak, haurrentzako animazioak eta abar antolatuko dituzte Etxarri-Aranatzen.

- Apirilaren 25ean: Haurren egunaren barruan, mendi ibilaldia egingo dute Aritzakunen.

- Apirilaren 28an: Lekeitioko Musika Bandak eta Baigorriko gaiteroek kontzertua emango dute Baigorriko elizan.

- Apirilaren 29an: Nafarroaren Eguna. Gaitero eta trikitilariak, erraldoiak, kontzertuak, bazkaria, dantzaldiak, herri kirolak...



EKE

Kike Maillo zinegile katalanak jasoko du Bilboko Fantantasiatzko zinema saria, generoaren barruan goraka doan artistei eskainia. Maillok zientzia fikziozko *Eva* film laburra estreinatuko du Bilbon, maiatzaren 9an. Film horrekin Zuzendari Berri Onenaren Goya saria irabazi du aurten. Fant zinema jaialdia (www.fantbilbao.net) astebete lehenago hasi eta maiatzaren 15ean bukatuko da.



CLIENTV.COM.AR

GAU GORRI (FLICKR)



Gasteizko Gaztetxeak

egitarau oparoa prestatu du 24. urteurrena ospatzeko. Hilaren 18an *Nola landu pentsamendu iraultzailea*. *Pentsatu eta sinetsi!* ize-neko tailer-tertulia

egingo da; 19an bertso saioa (Julio soto, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Arkaitz Estiballes, Andoni Egaña eta Ander Solozabal), 20an garagardo festa eta kontzertua; 21ean bazkari herrikoia, manifestazioa *Euskaraz bizitzera goaz* lemapean eta Sharon Stoner-en kontzertua; 22an jazz emanaldia; 24an *Ligoteo sanoa* mahai-ingurua; 25ean Bertsokatu finala; 26an *Swingüen zango* swing-kalejira eta kontzertua; eta 27an 3Gabe2 taldearen kontzertua.

Jon Maiak

apirilaren 21ean estreinatuko du erabakitze eskubideaz mintzodan *Gazta xati bat* dokumentala, Donostiako Victoria



Eugenia antzokian, Giza Eskubideen X. Zinemaldiaren barruan. Autodeterminazio eskubidearen alde lanean diharduen Goierriko (Gipuzkoako) Nazioen Mundua herri mugimenduaren eskariz egin du filma Maiak. Euskal Herriko eta Eskoziako errealitateak ditu ardatz dokumentalak.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

JON TORNER

1917ko iraultza osteko garai surrealistikak

Chagall en Rusia. Joann Sfar.

451 argialetxea (2011).

128 orrialde, koloretan. (Kolorea: Brigitte Findakly)



JOANN SFAR Frantziak azken hamarkadetan eman duen komikigilerik garrantzitsuenetakoa da irakurle askorentzat, sortzaile emankor eta iradokitzailea. Gezurrak ez dizuet esango: *Chagall en Rusia* komikiarekin –Zer arraiogatik deitzen diote liburu honi ere *nobela grafikoa*?– deskubritu dut nik autore frantziarra.

Marrazkien trazu soil erabat definitu gabeek,

Brigitte Findakly-ren kolore biziak eta kaligrafia narras antzekoak eraman ninduten liburutegiko komikien artetik –zorionez geroz eta gehiago aurki daitezke– Joann Sfar-en hau aukeratzera. Lehen begiratuan behintzat bazuen zerbaite berezia, azkenaldian irakurritudunetarik desberdin egiten zuena. Horrek ez zuen ezinbestean esan nahi hobe izango zenik, edo atseginez irakurriko nuenik. Hala gertatu da, ordea. Aurreikuspenak gainditu ditu komikiak, eta artista frantziarraren urratsei zorrotzago heltzeko ataka erakargarrian jarri nau.

1917ko iraultza osteko Errusian kokatua, Marc Chagall pintore judutarraren (Vitebsk, Bielorrusia, 1887-Saint Paul de Vence, Frantzia, 1985) figurari



heldu dio Sfar-ek, obra artistikoari baino, haren bizitzari. Pintore surrealista zen Chagall, eta komiki surrealista da esku artean daukaguna. Belaunera arteko sakonera duen errekan oinez ibiltzeko gai den Jesukristo funanbulista, ametsetan bizi den biolin-jole sozialista, zaldiei zintzurak ebakitzen dizkien harakina, gizonak akabatu eta emakumeak bortxatzen besterik ez dakiten soldadu kosakoak, aingeruz janzten diren emagalduek... Errealitate gordina islatzen du komikiak, baina nolabaiteko alaitasuna dario, musikal-tasun bitxi bat, Brigitte Findakly-ren koloreek areagotzen dutena. Zeld edo irudien marko guztiak neurri berekoak dira, igual-igualak denak, baina istorioak hainbeste ezuste gordetzen du, uniformetasun hori hankaz gora erortzen dela ia orri bakoitzean.

Chagall pintoreak eta Sfar komikigileak bat egiten dute liburuan: marrazteko era, koloreen erabilera, ikonografia judutarra... eta, ororen gainetik, bi artistok gidari duten surrealismo ederra.



CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

ogiaren egia

**Zatoz eta ezagutu
garai batean
egiten ziren ogiak,
lehengo osagai
eta teknikekin**

**Galparsoro
OKINDEGIA**


**Antzinako ogiaren kabia
bihurtu baitugu
denda zahar berria**

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Haurra negarrez

Haurra negar intzirika sartu da sukaldean:

– Zer gertatzen zaizu, seme? Zergatik ari zara horrela negarrez? –galdetu dio amak.

– Aita koadro bat zintzilikatu nahian ari



zen eta mailuarekin hatza jo du!

– Baina Julen! Aitak hatza harrapatu duela eta zu negarrez? Horregatik zuk ez zenuke negarrik egin behar, barre baizik!

– Horixe egin dut, ordea!

Soluzioa

J	A	S	O	I	R	O	A	I	K
F	L	O	S	I	R	O	A	I	K
H	T	O	L	I	S	O	I	R	O
A	B	I	Z	A	N	A	L	A	S
I	L	I	Z	A	N	A	L	A	S
L	A	U	R	A	F	I	L	A	S
M	A	M	I	T	O	A	L	A	S
F	O	N	T	E	I	K	A	L	A
K	L	E	R	A	T	A	L	A	S
T	R	I	P	A	N	D	I	S	A

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Super-eroankortasunaz aurkikuntza gehiago

MATERIAL SUPER-EROALEAK korrante elektrikoa ia trabarik gabe, hau da erresistentziarik gabe, daramaten materialak dira. Joan den mendean lorpen batzuk egin ziren alor horretan, baina supereroankortasuna beti oso tenperatura baxuetan lortua izan denez, horren aplikazio praktikoa oso zaila izan da.

Berriki, AEBetako unibertsitate bateko ikerlariak ikusi dute burdinaz eta selenioz osatutako konposatu batzuek une desberdinetan izan ditzaketela eroankortasuna; une horiek tenperatura eta presioarekin erlazionatuta daude. Adibidez, -240°C -tan eta 16.000 Gpa-ko (Giga-pascal) presiopean materiala super-eroale izaten hasten da, baina presioa 89.000 Gpa-ra handituz eroankortasuna desagertu egiten da. Presioa handitzen segituz, 122.000 Gpa inguruan eroankortasuna -225°C -tan agertzen da berriro. Datu horiek ikerketa bide berriak zabalduko dituzte.



GTBUTNRA.COM.AR



Robota arrain sardaren gidari



WWW.POLY.EDU

NEW YORKEKO INSTITUTU POLITEKNIKOKO ikerlari talde batek frogatu berri du arrain bat simulatzen duen robotak arrain sarda gida dezakeela. Ikerlariak naturan gidaritza lana egiten duten arrainen jarduna aztertu dute urteetan, eta orain robot biomimetikoa sortu dute, arrain gidariaren portaera ongi imitatzen duena.

Ikerketaren helburu nagusia omen da sardei hondamendi naturaletatik urruntzen laguntzea. Ea hala den. Izan ere,

bestelako helburu batzuk ere etortzen zaizkigu gogora; besteak beste, arrainak gidatzeko ahalmena lortuz gero, haiek arrantzasareetara eramateko ahalmena izango genuke. Ikerketa guztiek eduki ditzakete alde ona eta alde iluna, adibide honek frogatzen duenez.



Google-k betaurreko adimentsuaren proiektua aurkeztu du

Google-k iragarri du urtebete-ko epean kristalik gabeko betaurrekoak kaleratuko dituela. Betaurreko horiek kamera bat izango dute eskuineko besoan, eta horren bidez jaso eta bidaliko dituzte mezuak, irudiak, bideoak...

<http://ttiki.com/36619> (Gaztelaniaz)

Fukushima, isilik baina bizirik

Joan den martxoan urtea bete zen Fukushimako zentral nuklearraren leherketa izan zela. Hilabete batzuetan berri ugari izan genituen bertan gertatzen ari zenari buruz, baina pixkanaka informazioa desagertzen joan da hedabide nagusietatik, ez ordea bestelako medio batzuetatik. Adibide gisa, Fukushimako berriak eguneroko biltzen dituen blog hau.

<http://ttiki.com/36620> (Ingeleseaz)

Hogei kilometro altu den zurrumbilao Marten

Ezagunak baziren ere, lehen aldiz eskaini dizkigu NASAk Marteko zurrumbiloen irudiak. Joan den martxoan hartutako irudi hauetan, hautsezko zurrumbilo erraldoi bat ikus daiteke. Hogei kilometroko altuera dauka.

<http://ttiki.com/36621> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Emetan

ARTEMISA jainkosa grekoaren izena du zizare-belar edo belar minak, *Artemisia vulgaris*. Emakumeak babestea zuen hark bere zereginetako bat. Hark, jainkosak, eta honek, belarrak. Osagai xebreak ditu bigarrenak: B bitaminaren taldeko kolina, DNA eta RNA azidoen osagai adenina eta, batik bat esentzian nabarmenak diren, eukaliptola eta tujona. Eta sendabide berezietan barrena erabili izan da zizare-belarra.

Hilekoa eragiteko eta ohikotzeko indarra du, zilborpean jarrita, zizare-belarraren hostoekin egindako enplastuak. Erditu ezinik dagoenari ere laguntzen dio eta, behin erdituta, txarpoil haziak (*Cuminum cyminum*), egositako oilo-arrautza gorringoak eta txerri gantza bere zukuarekin nahasian duen enplastua mina kentzeko aproposa da. Batzuetan abortatzeko ere erabili izan omen da, eta haren sinonimo gisa ere artemisa hitza darabilte gaztelaraz.

Frantzian XIV. mendean ziotenez, baraurik bera- ren ura hartzen duen emakumea loratu egiten da; ezker eskuaz eta eguzkia azaldu aurretik bildutakoa behar du, baina...

Urrutira gabe izaten da zizare-belarra. Emearen sendabelar bikaina eta nitrogenoz aberastutako lurza- le izateak asko hurbiltzen du etxera: azienda gehien ibiltzen den tokiak, landu gabeko sailak, zaborte- giak, bide ertzak... Ulertzekoa da, *Artemisia vulgaris*: izenean bertan emakumearen jainkosaz gain arrunta izatea darama.

Ingelesentzat saldukeria- edo traizio-belarra, *Felon Herb*, baita euskaldunontzat bezala erretzekoa, *Sailor's Tobacco*, eta gizon gordin eta bihurriarena, *Naughty Man*, da. Non daude emakumeak Ingalaterran? Edo erregina itxurak egiten dizkiena ere gizasemea da?



CHRISTIAN FISCHER-CC BY SA

Artemisia vulgaris.



Biberoak SAT Legu

C/ Goitoltza Auzoa, 36 · 48196 Lezama Bizkaia · Telf:944556198
biberoaklegu@gmail.com · <http://www.biberoaklegu.com>



© 660 745 774 / 699 152 282

milorri@usurbil.com

Usurbil

milorrilorezaintzaekologikoa.blogspot.com

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Piramideetan lan egin nahi dut



Gizahko piramideak eraiki zituztenak esklaboak izan zirela uste izan dugu luzaroan, baina aurkitutako dokumentuek diote soldatapeko langileak zirela, eskubideak zituztela, eta, esaterako, lan absentismoa pentsatu baino ohikoagoa zela.

GIZAH (EGIPTO) K.A. 2500. IV. dinastiako faraoiak piramideak eraiki zituzten, hil ondorengo bizitzara luxu guztiekin joateko. Luzaroan piramideak esklaboek eraiki zituztela uste izan arren, orain badakigu langile erabat askeak zirela, eta ondo elikatuta eta antolatuta zeudela.

40 eta 60 langile arteko taldeetan antolatuta zeuden, talde bakoitza langileburu batek zuzentzen zuen, eta lanak ikuskatzeko idazlari bana ere bazuten. Idazlariak, lanak gainbegirtzeaz gain, administratzaile lana ere egiten zuten; “kontabilitate papiroak” bete eta eguneratzen zituzten. Langileen lan erritmoa, erabilitako materiala... idazten zituzten papiro horietan. Lan absentismoa ere jasotzen zuten dokumentu horietan, eta lanera ez joateko arrazoia onartuz gero, idazlariak papiroan idazten zuen. Hala, absentismoarako arrazoi “justifikatuen” zerrenda oparoa bildu dute arkeologoez –pena, arrazoi ez justifikatuen zerrendarik guregana ez iritsi izana–; gutxi batzuk aukeratu ditugu:

- Senitarteko bat baltsamatzea.
- Eskorpioi batek hozka egitea.
- Ospakizun baterako garagardoa prestatzea.
- Mozkortuta egotea.

– Senar-emazteen arteko eztabaida batean, emaztearen jipoia jasotzea.

Harrigarria bada ere, jaiegunez jositako lan egutegia zuten. Faraoia koroatzean edo hiltzean atsedean egunak izaten zituzten, eta egun seinaltatu horien urteurrenak ere jaiegun ofizialak ziren. Bestelako jai erlijiosoak ere bazituzten, Nilo ibaiaren uraldiak atsedean hartuta ospatzen zituzten, eta hori gutxi balitz, *epagomenoak* zituzten: 365 eguneko eguzki urtea osatzeko, egiptoarrek 360 eguneko zikloari bost jaiegun eransten zizkioten.

Gainera, errotazio sistema erabiltzen zuten: fisikoki gogorrenak ziren lanetan hiru hilabetez aritzen ziren soilik, eta gero beste lan arinago bat hartzen zuten. Sail honetan bertan azaldu genuenez (ARGIA, 2.185. zbkia.), piramideetako langileak izan ziren greba egiten lehenak (eta faraoiak langileen eskakizunei erantzun zien). Lan horren eragozpenik handiena segurtasun gabezia zen; lan istripuak oso ohikoak ziren, eta heriotza-tasa altua.

Baina, ziurrenik, esklabotzat genituen horiek ez ziguten inbidia handirik izango XXI. mendeko langile libreoi.



Arrastoak

Noiztik edaten
dugu helduok
esnea?

DUELA 7.500 URTE Erdialdeko Europan –egungo Hungaria eta Eslovakia iparraldean– gizakiak esne ganadua etxekotzen hasi ziren. Ohitura Europa osoan zabaldu zen pixkanaka eta, batez ere iparraldeko komunitateetan, helduak animalia esnea edaten hasi ziren, argitasun urriak eragindako D bitamina gabezia ordezkatzeko. Animalia ugaztunek, eta beraz gizakiek ere bai, edoskitzaroa amaitzean laktasa entzima ekoizteari uzten diote. Baina ohitura horrek aldaketa genetikoak eragin zituen Europan. Hala, munduko ia gizaki heldu guztiek ez dute laktasarik ekoizten eta esnekiekiko intolerantzia dute. Europar jatorriko gizakietan, aldiz, intolerantzia askoz urriagoa da. Londresko University Collegeko Mark Thomasen arabera, “europar gehienok laktasa ekoizten jarraitzen dugu bizitza osoan”.



LIFE

Frantziako presidentetzarako bozak

Sarkozy ala Hollande:

bozen arrantzan, zirt eta zart



Presidentetzarako hauteskundeak dira Frantziako Estatuan. Bi bozketan: apirilaren 22an eta maiatzaren 6an. Bost urtean behin hautatzen da presidentea. Bi dira hautagai nagusiak: jarduneko presidente Nicolas Sarkozy (UMP) eta François Hollande (PS).

MIKEL ASURMENDI

BAZKO BIHARAMUNEAN hasi zen bi asteko boz kanpaina. Ofiziala, alegia. Izan ere, bost aste joan dira hautagaiak —zeharka bada ere— boto eske hasi zirenetik; oposizioako hautagai nagusi François Hollandek PSko primariak irabazi ondotik. Areago, Nazioarteko Diru Funtseko presidente Dominique Strauss-Kahn-en —PSko hautagai nagusia zenaren— sexu aferek sei hilabete aurreratu zuten presidentetzarako kanpaina bortitza eta nahastua. Hamar dira hautagaiak: Nathalie

Arthaud (Lutte Ouvrière), François Bayrou (MoDem), Nicolas Dupont-Aignan (Debout La République) François Hollande (PS), Eva Joly (Europe Ecologie-Les Verts), Marine Le Pen (Front National), Jean-Luc Mélenchon (Front de Gauche), Philippe Poutou (Nouveau Parti Anticapitaliste), Nicolas Sarkozy (UMP) eta Jacques Chénade (Solidarité et Progrès). Lehenago baina, hamar hauekin lehian, beste 40 hautagai aritu ziren presidente izateko bide luzean.


Hona, orain arteko hauteskunde kanpainaren premisa bat: Frantziako eredu errepublikarra zaharkituta dago. Estatuaren eredu instituzionalak ez du Europaren baitan funtzionatzen. Frantziako demokraziak konfiantza galdu du.

Jarraian, kanpaina ofizialaren argazki moduko bat.

Hedabideen erritmora

Hedabideek —eta boz joeren inketek— markatzen dute kanpainaren erritmoa, baita hautagaien arteko

Zortzi aburu-ikerketen batez bestekoak



lehia ere. Zortzi enpresa-ikerketen emaitzen batez bestekoak batu ditugu. Lehen itzulian hauek dira hautagaiei ematen dizkieten bozen ehunekoak: %29 Sarkozyri. %28,5 Hollanderi. %15 Le Peni. %14,5 Mélenchoni. %9,5 Bayrouri. Gainerako lauek bozen %1 ingurua jasoko ei dute. Hauen bozek pisu txikiagoa dute bigarren itzulian begira: %4-5. Halere, hauen bozemaileek, eta nagusiki Le Pen, Mélenchon eta Bayrouren aldekoek erabakiko dute, bigarren itzulian, nor izanen den Frantziako presidentea. Hollande irabazletzat jotzen dute inkestek, bozen %55arekin. Sarkozyk, oster, %45a lortuko lituzke.

Aurrekanpainakoak

Nicolas Sarkozyren itxaropenek behetik gora egin dute. Bozen %6 irabazi du azken hiru hilabetetan. Frantzia Indartsua (*La France Forte*) da bere eslogana. Demagogia populista erabili du erruz: “Eskuineko nahiz ezkerreko frantziarrak behar ditut”, erran du. Europako ongizatearen estatu-eredua (Frantziakoa barne) gainbehera etorri izanak kolokan jarri zuen Eliseoan jarraitzea. Alabaina, Estatuaren segurtasun eta Frantziako krisialdi ekonomikoan –are okerragoa izanen delakoan– oinarritzen duen “beldurrezko” bere diskurtso larderiatsuak etekinak eman dizkio.

Islamismoaren mamua agertu da aurrekanpainan. Poliziak hainbat talde jihadista atxilotu ditu azken asteotan. Lehenago, Mohammed Merah jihadistak Okzitaniako Montauban eta Tolosan egin bide zituen hilketak, hala nola poliziak bera hil izanak indartu dituzte jarduneko presidentearen kanpaina –eta politika–. Langabeziaren mamua ere erabili du Sarkozyk: “Frantziarrek Hollande presidente hautatuko balute, honek Rodriguez Zapatero sozialistak utzitako Espainia bihurtuko luke Frantzia” erran du. Hots, bost milioi langabetuen herrialdea bilakatuko litzateke Frantzia. Halaber, Sarkozyk Alemaniako kantziler Angela Merkelen “menpekotasunetik” ihes egin du kanpainen.

François Hollanderen esloganak aldaketaren garaia (*Le Changement c'est maintenant*) aldarrikatzen du. Sozialdemokraziaren aldarria zabaltu du. Sarkozyren aldean, etorkinekiko politika ordenatuagoa, nazioarteko politika malguagoa –bozak irabaziz gero, tropak Afganistandik aterako dituela hitzeman du–, kanpo zorra doituko duela, eta aberatsen eta langile klaseen arteko fiskalitate proportzionalagoa ezarriko duela promes egin du, besteak beste. Alta, inkestek urtarrian Sarkozyrekiko ematen zioten sei puntuen aldea galdu du.

Ezbairik gabe, Front de Gauche Jean-Luc Mélenchonen gorakadak eragin zuzena dauka Hollanderen bozen aurreikuspenen beherakadan. Inkestek bozen %7,5 iragarri zioten Mélenchoni iragan urtarriaren, eta kanpaina hasierarako boz kopurua bikoiztu ditu. Parisko La Bastille plazan indar erakustaldia egin zuen iragan martxoko 18an. Ezkerreko politikari batek ez du lortu azken urteetan Frantzian, alderdi sozialistaz harago doazen ezkertiarren indarrak batzea. Ezkerreko Alderdiaren (Parti de Gauche) buru Mélenchonek, aldiz, ezkerreko ildo nagusiak bildu ditu. “PSk promes egin ohi duen, baina inoiz betetzen ez duen politika sozialagoa egitea” hitzeman die frantziarrei. V. Errepublika amaitutzat eman du eta VI. aldarrikatu kanpainen. “Ezkerrak boterea [*Prenez le pouvoir* esloganaz] hartu behar du, plaza hartu behar du, benetako demokrazia gauzatuko bada” dio.

Eskuin muturreko Fronte Nazionalako Marine Le Penek bozen %15 lortuko bide du inkesten ara-

Dive Tarpoon urpekaritza



Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoon@euskalnet.net
www.divetarpoon.com



Mélenchon, Le Pen eta Bayrouren aldeko bozemaileek erabakiko dute presindetea nor izanen den bigarren itzulian.

bera. Inkestek baina, hiru puntu gehiago ematen zioten urtarrilean. Pentsatzekoa da, bozemaileen %3 Sarkozyren aldera lerratu direla. Le Penek diskurtsoa islamaren eta immigrazioaren aurka funtsatzen du, langabezia tasa azken hauei leporatuz. Europak Frantzia hondamendira daramala dio, eta berau salbatzeko boterea indartu beharra proposatzen du. Zailtasun estrategikoak ditu, haatik. Azken batean, aldarrikapen horiek Sarkozyren eskuinak modu pragmatiko edota sofistikatuagoan bere egiten baititu. Fronte Nazionalaren egoera politikoa paradoxikoa da. Aspaldiko urtetatik populazioaren bozen %15-18 jasotzen baitu, baina indar hau ez da botere gunetan –instituzioetan– gauzatzen. Fronte Nazionala hirugarren indarra da, baina Marine Le Pen porrotaren zama arrastatzen ari da, nolabait, kanpainan. Adituek diotenez, bere aita Jean-Mari Le Penek erabili ohi zuen diskurtso gogorra falta zaio.

François Bayrou, zentroko politikaren MoDem-en burua, paradoxa-ren beste adibide bat da. Bozen %9,5 iragarri diote kanpaina ofizialaren hasieran, urtarrilean, ordea, inkestek %14 eman zioten. Ia bost puntuen galera jasan du. Bere kasuan ere, bozemaile zentrista zenbait UMPko eskuin aldera lerratu direla

Inkestek urtarrilean Sarkozyrekiko ematen zioten sei puntuen alde galdu du Hollandek

pentsa daiteke. Demagun bozen %3. Hiru puntu eskuin muturretik gehi beste hiru zentrotik, sei puntu dira –kanpaina nagusia hasi orduko– Sarkozyren eskuinak bereganatu dituen. MoDem-en egoera paradoxikoa hauteskunder haztekin errepikatzen da. Bayrouk lideratzen duen zentroko politika errealista aldarrika-

tzen badu ere, politikaren pragmatismoak bizkarra ematen dio funtsean. Bayrouren oztopo handienetako bat, bakar-bakarrik egotea da bere alderdian. Ez dauka egiturarik eta talde sendorik bere inguruan. Egoera hau, neurri batean, zentroaren beraren praxi politikoaren ondorioztat jo daiteke. Erregio eta Departamenduetako botere gunetan, eskuarki, UMPekin batean aritzen baita.

Kanpainaren berezitasunak

Aurrekanpaina joan da, eta oraindik ere boz emaile erabakigabeen ehunekoa 15 da. Boz hauek kanpainako azken txanpan jokatuko dira. Frantziako hauteskundeek AEBetako demokraziaren ereduaren gero eta antza handiago daukate nolabait ere. Kanpaina hamar hautagaien bideoklip banarekin abiatu da. Irudi batek argi diezaguke kanpainaren jitea: Europe Ecologie-Les Verts hautagai Eva Jolyk erabili ohi dituen betaurreko gorrien orde, berdeak jantzi ditu. Ezkerreko baloreak



HOTELA IRIARTE JAUREGIA ****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com



GAIZKA IROZ

Sarkozyren bisitarekin hasi zen Iparraldean boz kanpaina. Hollanderen etorrera ere iragarri zen, baina orainokoan ez da heldu.

defendatzen omen dituen hautagai baten aldetik, ekimen hutsal baten adibidea baino ez da. Kanpainaren beste ezaugarri bat, hasi eta berehala, hautagaien proposamenak dira. Esaterako: gazteek gida-baimena eskuratzeko modu merkeak proposatzen dituzte hautagaiak. 1.500 euro behar dira gida-baimena lortzeko, bada, badago “dohainik” eskuratzeko proposatzen duena, Mélenchonek, kasu. Halaber, badaude ere errepideko trafikoko isunak amnistiatzea proposatu duten hautagaiak. Le Pen, kasu, neurri horren alde agertu da. Kanpaina, gazteen bozen “arrantza kanpainatzat” ere jo daiteke. Kanpainaren funtsa ilustratzen duten ohiko proposamenak dira hauek, batzuk zaharrak eta berriak bestetarik.

Funtsean, hautagaiak badakite presidente aulkia Sarkozyren eta Hollanderen eskuera besterik ez dagoela. Hartara, Sarkozyk —zuzen edo zeharka— eskuin muturreko FNko eta zentroko MoDem-en aldetiko proposamenak arretaz jasotzen eta neurtzen ditu bigarren itzulira begira. Eskuineko Dupont-Aignanek eta Cheminadek ere akolitaren rola jokatzeko dute hauen inguruan. Ezkerraldean antzean gertatzen da. Inkestek Hollanderi ematen diote Eliseoko aulkia. Itxura guztien arabera, Mélenchonek eta Jolyk Hollande babestuko dute

bigarren itzulian. Alabaina, nork bere proposamenak indartzeko ongi baliatzen dute kanpaina. Adibidez, Mélenchonek langile profesionalen gutxieneko soldata (SMIC) 1.700 eurotan jartzea proposatu du. Jolyk energia berriztagarrien aldeko politika finkoaren truk eskaintzen dio bere sostengua. Ezker muturreko Arthaud eta Poutou hautagaiak ere klase sozial apalen aldarrikapenen truk, euren aldeko boza kario eskaintzen diote Hollanderi.

Eskuinak *statu quo*ari eusten dio, eta Frantziako muturreko ezkerre eskuina bezain jakobinista da

Guztiarekin, beren boza erabaki gabe duten hautesleen %15 hedabidean eraginpean jokatzeko den kanpainan erabakitzen ari da. Sare sozialek —Twitter, Facebook eta abarrek— modu berezian eragiten dute emaitzetan, batez ere kanpainako azken hiru egunetan. Lege eta arau berriak ezarri ezean, indartsuek beren sarera aise daramate boza, hots, “arraina”.

Abertzaleak aiduru

Sarkozy presidentearen bisitarekin abiatu zen Ipar Euskal Herrian boz

kanpaina. Hollanderen etorrera ere iragarri zen, baina orainokoan ez da heldu. Abertzaleen aldarrikapenak ozenki entzun zituen egungo presidentek: euskal instituzioa eta euskararen ofizialtasuna. Deiadar kolektiboaren Baionako manifestazioaren oihartzuna ere handia izan da. Anartean, EH Bai koalizioak begi batez behatzen ditu presidentetzarako hautakundeak eta burubelarri ari da lantzen, ekainean izanen diren Legebiltzarrerakoak (Assemblée Nationale). Nolanahi den ere, egungo sistema demokratikoaren bermatzaileek eta Iparraldeko politikari *notableek* —UMP eta MoDemeko hautetsiek; baita PSkoek ere beste neurrian— Ipar Euskal Herriari begira egin ohi dituzten proposamenak ez dira egundo bete. Hona, azken adibidea: François Hollande presidentegaiak politika posibilista urratzen duen bitartean —euskal instituzioa eta euskararen ofizialtasunaren aldeko promes historiko antzuak gogoan— ezker-raldeko bozak “arrantzatzea” espero du. Alabaina, ezkerreko hautagaiak (Mélenchon, Arthaud eta Poutou) hizkuntza gutxituen ezagutza konstituzionala errefusatzeko dute funtsean, era batez edo bestez. Eskuinak *statu quo*ari eusten dio, eta Frantziako muturreko ezkerre eskuina bezain jakobinista da. ■



Tuaregak

Zergatik ez du nahi nazioarteak Azawaden independentzia?

Pasa den apirilaren 6an Azawadeko Askapen Mugimenduak independentzia aldarrikatu zuen, Maliko iparraldean. Tuaregez osatutako taldeak urtarilaren 17an hasitako askapen altxamendua amaitutzat jo zuen aldarrikapen horrekin. Baina nazioarteak ez du onartu.

JAGOBA SALVADOR

TUAREGEK MALIN azken egunetan bizitzen ari den egoera politiko nahasia baliatu dute zonaldea kontrolatu eta Azawad herrialdea, *de facto* bada ere, sortzeko. Izan ere, Afrikar Batasunak eta Europar Batasunak ez dute aldarrikapen hau onartu. Frantzia, Maliren kolonizatzaile izandakoa eta herrialdean oraindik interes ekonomiko ugari dituen, espreski agertu da Azawaden independentziaren aurka.

Hain zuzen ere, zonaldeko gatazkak jatorri koloniala du, Afrikako beste askoren antzera. Bere garaian, Frantziak bere interesen zerbitzura diseinatu zuen Mali eta herrialdeko tuaregak iparraldean baztertuta utzi zituen, hegoaldearen kontrolpean, Afrikan espezializatutako kazetariak askotan nabarmendu dutenez.

Tuareg herria historikoki baztertuta eta arrotza kontsideratua izan da kolonizatzaile eta herrialde berrien aldetik. Mali, Niger, Argelia, Libia, Burkina Faso eta Mauritania banatuta, 1,5 miloi pertsona inguruk osatutako herria da. Tifinagh izeneko idazkera propioa dute, nagusiki nomadak dira eta basamortuan bizi dira.

Germán Leyens kazetariak egotzari buruz idatzitako analisiaren arabera, Mali Afrikako hirugarren urre ekoizlea da, Hegoafrika eta Ghanaren atzetik. Gainera, herrialdearen iparraldean, independentzia aldarrikatu duten gunean, Frantziak kudeatutako uranio erreserbak daude. Tuaregek uranio mehatzeen



Tuareg talde bat Anefis hiriaren askapena ospatzen, Gao eta Kidal artean. Azawaden uranio erreserba ugari daude, Frantziak kudeatuta, eta petrolio eta gas naturala bilatzeko saiakerak ere hasi dira.

eta sortzen dituen irabazien gaineko kontrol gehiago eskatu izan diote gobernuari urteetan zehar. Era berean, azken urteetan zonalde honetan petrolio eta gas naturala bilatzeko saiakerak izan dira.

Zenbait hedabidek zabaldu dutenez, Al Qaedaekin lotutako taldeen laguntza izan du Azawadeko Askapen Mugimenduak eta Maliko Gobernuak uste horiei indarra eman die, nazioartearen aurrean altxamendua deslegitimizatzeko. Mendebaldeko herrialdeek ez baitute inoiz onar-

tuko baliabide natural aberatsak dituen zonaldea muturrekotzat jotzen diren taldeen esku geratzea.

Oraindik ikusteko dago zer gertatuko den Azawad herrialdearekin; militarren esku hartzea, negoziazioa edo estatu berriaren sorrera ofiziala dira aukerak. Badirudi oraingoz lehenengoak duela indar gehien, Afrika Mendebaldeko Estatu Komunitatea prest agertu baita Maliko mugara tropak bidaltzeko. ■



Euskararen kale erabilera Laudion

%3,69tik %9ra hamar urtean

Euskararen ezagutza datuak gora egiten ikustera ohitu gara, erabilerari aldiz, kosta egiten zaio goranzko pausoak ematea. Bada, Laudion, hamar urtean %3,69tik %9ra igo da erabilera. Arabako herri honetan duela mende bat galdu zen euskara.

MIEL A. ELUSTONDO



JON HERNÁEZ / A. P.

19.000 inguru laudioarretatik herena da euskalduna. Argazkian, 2011n Araba Euskaraz ospatzen.

“GORA LAUDIO” dioen prentsa-oharra eskuan hartu eta heldu gara Laudiora. Oharrean irakurri dugunez, euskararen erabilera erreala bikoiztu baino gehiago egin da azkeneko hamar urteetan herrian: %3,69 zen 2001ean eta %9 izan zen 2011ko udazkenean. Laudioako Udalaren Euskara Arloko teknikaria da Felix Muguruza. Berak azaldu digu datua, Euskararen Egunarekin batera

eman zutena. “Soziolinguistika Klusterra kale neurketa egiten ari zen herrian, zerbitzua geuk kontratatuta, eta herriko emaitzak guri aurreratzeko eskatu genien. Emaitzen berri nahi genuen, Euskararen Egunean zabaltzeko, nahiz eta behin-behineko datua izan, baina zer edo zer. Izan datu txarra, izan ona, baina irrikatan geunden. Eta erabilera bikoiztu egin dela esan

ziguten! Ikaragarria! Ezohikoa zen. Eta emaitzak errore tarte txikia zuela ere esan ziguten. Oso fidagarria zela neurketa”. Hain zuzen, 2.408 lagunen artean 981 elkarrizketa ziren neurtuak, okerrerako aukera oso txikia uzten zutenak. Laudion ez zuten gisako emaitzarik espero.

“Ezta pentsatu ere. Gainera, inguruan horrelako emaitzarik ez dela izan kontuan hartuz gero, are

gutxiago. Gurean, berriz, gora egin du erabilerak, nahiko gora, gainera. Ez dakit nola gertatu den ere. Duela ehun urte galdu zen euskara inguru honetan, hemen gauden euskaldun guztiok euskaldun berriak gara. Gaur egun populazioaren herena euskalduna da Laudion, ahalegin itzela egin ondoren. Ahalegin hori egin duen jendeak ez du ikasitakoa ezkutuan gorde nahi, erakutsi egin nahi du. Beharbada, euskara zerutik jaso duen horrek ez du estimatuko, baina guk hainbat urte euskara ikasten eman eta gero, erabili besterik ezin egin!”.

Populazioaren herena dute euskalduna Laudion. Erabilera ez da hereina, hala ere. Ikasi duten guztiek ez dute erabiltzen, Muguruzak esandakoaren kontrara... “Bai, badakigu hori nola den. Horrelakorik ez da inon gertatzen. Eredu matematikoa ere garatu zuten garai batean, ezagutza eta erabilera aztertzen zituen eta oraingo emaitzak ezin hobeak dira. Duela hamar urtekoak, espero zitezkeenak ziren, baina matematikoki ere. Oraingo emaitzak, oso onak”. Datuak beti datu, ordea. “Baina ez dira datuak bakarrik, errealitatea ere bada: klean, parkean, umeei ari zarela... euskara entzuten da, nahikotxo. Gehiago esango dizut, ondo-ko herrian, Orozkon, herri euskalduna, zoaz hango plazara, euskara gutxiago entzungo duzu Laudion baino. Zubiaur da Orozkoko erdigunea. Jendea hara joaten denean, utzi baserri hizkuntza eta gaztelaniaz hasten da. Euskaldunak dira, baina gaztelaniaz ariko dira bata besteari, eta umeei. Halako karnak ditugu eskualdean, baina ondo ari gara jokoan”.

Erabileraren eragileak

Eta nork egin du lan erabilera gerta dadin? Duela hamar urteko erabilera halako bi baino gehiago da orain Laudion. Ez da euskaltzaleen erabilera bakarrik, hortik lekore dago

Alkate euskaltzalea abantaila

Felix Muguruzaren oharra, Audioko alkate Natxo Urkixoren inguruan galdeturik erantzun duena: “Izaera sozialeko esparruak beti dira bigarren mailakoak –Euskara, Kultura, Emakumea...–, Hirigintza, Lan eta Zerbitzuak, Ogasuna dira sail indartsuenak, bunkerrak. Gu, satelite gara, haien inguruan jira-biraka gabiltzanak. Euskara Arloa da diru gutxien duen saila, adibidez. Ez da diru gutxi baliatzen duela, baina, oro har, txikietakoa da. Guk, abantaila bat dugu alkatea euskaltzalea dugulako, euskalgintzan urte askoan lan egindakoa, filologoa, ikertzailea... Hurbiletik bizi du euskara. Eta

ez da Audioko alkatearen kasua bakarrik. Eskualde osoko alkateak ditugu euskaldunak. Duela hogeitau urte pentsaezina izango zen: Laudio, Okondo, Aiara, Amurrio eta Artziniega, koadrilako bost herrietan, euskaldunak alkateak. Eta nahi baduzu, baita Urduñan ere. Alkatea euskaldun izateak markatzen du, neurri batean edo bestean, udalaren jarduna, jakina baietz! Euskara berretzat hartzen ez duenak, ez dakienak, ezezaguntzat dauka, ez da gustura izango, mehatxutzat ere biziko du, gauza deseroso. Aldiz, mundu horretan integratuta baldin bazaude, disfrutatu egingo duzu”.

Muguruzaren aburuz: “Euskara ondo baloratuta dago hemen, horrek ikusteko handia du. Beste gauza bat: orain arte, erabileraren oinarria euskalgintza zen, euskaltzaleok, ortodoxoak. Orain, aldiz, zoaz umeak jolasean ari diren lekura, zoaz parkera, edo Euskara Arlo

“Beharbada, euskara zerutik jaso duenak ez du estimatuko, baina guk hainbat urte euskara ikasten eman eta gero, erabili besterik ezin egin!”

**FELIX MUGURUZA,
EUSKARA ARLOKO TEKNIKARIA**

honetatik antolatzen ditugun ekitaldietara, eta han, gurasoak ikusiko dituzu, euskalgintzarekin zer ikusirik ez dutenak, euskaltzale ez direnak, baina euskaraz mintzatzen direnak. Sentimendu horixe dute. Izan ere, daukan onena transmititu nahi

dio gurasoak umeari eta tartean, euskara. Seguru nago guraso horiek ez zutela euskara askorik erabiltzen umeak izan baino lehen. Baina umeak izan dituzte, eta beren onena eman nahi diete haurrei, euskara erabiliz. Eta badiotsut, guraso horiek ez dira euskaltzale militanteak. Baina erabiltzaileak dira”. Zer esan nahi du horrek, ordea? Zein da interpretazioa? “Normalizazioaren urratsa ere bada hori. Beste lekuetara ere helduko dela uste dut: euskaltzaleak izan gabe ere, euskara erabiltzaile dira. Zenbat gara, bada, euskaltzaleok Laudion? Berrehunen bat? Eta apur bat estutuz gero, ortodoxoak, berrogeita hamarren bat.”

Arestian esana du, sekulako ahalegina egin dute Laudion... Nork egin du ahalegin hori? Duela hamar urte sortu zen Udalaren Euskara Arloa, erabilera 3,69 izatetik 9 izatera igaro den tartea. “Jende askok egin du lan. Duela hamar urte sortu zen Udalaren Euskara Arloa, eta horrek ere izango zuen eragina, seguru, irakaskuntzan, euskalgintzan... Udala eragile izan dela,

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

**gure
artean!
euskaraz**



**BFA
DFB**

Natxo Urkixo, Laudioko alkatea

«Egoera diglosikoak behartzen gaitu egunero lubakietara jotzera»

Natxo Urkixo (Laudio, 1960) euskara irakasle izan da joan deneko hogeita hamahiru urtean herriko Lanbide Heziketa Eskolan. Euskal Filologia egina da, eta inguruko euskararen inguruko ikerketa ere bai. “Euskaltegiak asmatu aurretik ikasi nuen euskaraz. Lehenengo, Alberto Mugira fraidearekin Laudioko kolegioan. *Euskalduntzen 1* eta *Euskalduntzen 2* egin nuen harekin. *Euskalduntzen 3* irakatsiko zuen inor ere ez zegoen garai hartan Laudion. Orduan, gaur egun udaleko itzultzaile den Juan Mari Iriondorekin hasi nintzen. Gramatika liburuak erosi genituen eta ekin genion, 1975ean”.

Alkatea euskaldun eta euskaltzale izateak zer garrantzi du?

Garrantzizkoa da alkatea euskaltzalea izatea, jendeak norbera euskararekin identifikatzea. Euskaltzalea naiz, eta alkate naizenetik ez dut esfortzurik egin beharrik izan udaleko hainbat langilek beren hizkuntz erregistroa aldatu eta bat-batean, nirekin euskaraz hitz egiteko. Nik ez dut ezer egin, jendeak euskararekin lotzen nau, eta horren arabera jokatu du. Automatikoa izan da.



ZALDI ERO

“Alkate naizenetik udaleko hainbat langilek beren hizkuntz erregistroa aldatu eta nirekin euskaraz hitz egiten hasi dira”.

dudarik ez, baina bada besterik. Irakaskuntzan, esaterako, urteak dira hemen A eredurik ez duguna. Jendeak euskararekiko pertzepzioari dagokionez, aldekoa du. Eta kontuan hartu hemen izan dugun immigrazio handia, industriarekin etorri zitzaiguna. Kanpoko jende asko da Laudion, baina haien seme-alabak euskararen mundura hurbildu dira.

Edo haiek erakartzen jakin dugu, hori ere bai”. Zertan da euskalgintza Laudion, euskara elkarteak eta gainerakoak? “Horra hor Basalarri-na euskara elkarte, Kirikiño elkarte –haurrentzako ekitaldiak antolatzen dituen–, mendi elkarte, txirrindulariena... Eman dezagun, mendi elkarte. Hark egiten dituen afixa guztiak euskara hutsean egiten

ditu joan den hogeit urtetik hona. Eta, jakina, kalean gora kalean behera zabiltzala, tabernetan eta gainerakoetan, beti afixa hori euskaraz, normalizat hartzen duzu. Gaztelania hutsezko afixa arraro egiten da hemen”.

Erabilera areagotzeko kanpainak eginak dituzte, bat baino gehiago, behin baino gehiagotan, bai Euskara Arloak, bai euskara elkarteek ere... Muguruzaren gogoeta horri dagokionez: “Begira, gure herrian, ematen zuen euskalduna izatea zigorra zela, zama, zailtasunak agertu ohi zirelako eta haserre bide asko. Orain, berriz, esango nuke aisialdian esaterako, gaztelania hitzunez ez duten eskaintza dutela euskaldunek eta horrek nahitaez laguntzen du. Hainbat ekitaldi antolatzen ditugu, baina euskaraz dira eta beraz, praktikoa da euskalduna izatea, euskaraz egitea. Dela film bat ikusteko, dela mendira joateko, dela bisita gidatu batean parte hartzeko”. Esperientzia zehatz bat ondoren: “Gazteen-tzako mendi irtenaldiak antolatzen ditu elkarteak eta Euskal Herri osoan egiten ditu txangoak. Parte hartu nahi duenak ez du betebeharr

ZALDI ERO



Felix Muguruza, Laudioko Udaleko Euskara Arloko teknikaria da.

Zertan eragin dio zure soslaiak udalaren jardunari?

Hainbeste ere ez, oraindik. Edo nahi baino gutxiago. Bihotzeko min handiarekin sinatu behar ditut gaztelania hutsean datozkidan paper asko eta asko. Espero dut horretan ere aurreratzea. Gauzak mantso egin nahi ditut, baina ganoraz. Neurririk hartzen ez bada, horrela luzatuko da egoera, inertziar. Muga jarri behar zaio horri. Atalez atal egin behar da lan. Oso lan konplexua da.

Euskara Arloa Kulturaren azpiko izateak onura ala kalte du hizkuntzak? Gainerako sail, arlo eta atalak libre dira euskara erabiltzeko konpromisotik?

Batetik, zer den euskara eta zer kultura bereizi behar ditugu. Euskara Arloak erabileran eragin behar du. Kultur ekintzak baliabide izan litezke, lanabesak, besterik ez. Arriskua da euskara kulturaren arloko eginez gero, ekintzak antolatzea helburu bihurtzea. Kultur ekitaldiak Kultur Arloari dagozkio, izan euskaraz, gaztelaniaz edo dena delako hizkuntzan. Euskara Arloak erabilera du helburu eta elkarlanean jardun behar du Kultur Arloarekin, eta gainerakoekin: udalaren men-

peko diren langileen euskalduntzea, motibazioa, erabilera...

Noiz emango zaio zentraltasuna euskarari, noiz ekarriko da alkatetzara?

Noiz, ez dakit. Baina posible da. Horrela, gainera, alkatetari ematen diozu ardura, normal-kuntzarena.

"Hainbeste urte eman dugu jendea euskalduntzen eta uste genuen jendea euskaraz hasiko zela, ikasi ahala, baina ez da horrelakorik gertatzen"

Nola hartu du Laudio euskararen erabilera bikoiztu baino gehiago egin delako berria?

Kontrako hitzik ez dut jaso. Urrats naturala izan da. Ni euskaldun eta euskaltzale izateak ez dakit eragingo zuen. Egoera diglosikoak behartzen gaitu egunero lubakietara jotzera,

lanera. Ezin pentsatu dena eginda dagoenik, dena eginda dagoela pentsatuz gero, pikutara! Hainbeste urte eman dugu jendea euskalduntzen eta uste genuen jendea euskaraz hasiko zela, ikasi ahala, baina ez da horrelakorik gertatzen. Horren gainean egon behar da, eta eragin.

Hamar urte barru, berriz bikoiztuko da euskararen erabilera Laudion?

Hamar urte barru, ez. Bost urte barru! Kar, kar, kar...

bat baizik: euskaraz egitea. Euskaraz egiten ez baduzu, gauza ederra galtzen ari zaren sentazioa daukazu. Horixe da konpromisoa, baldintza *sine qua non*. Inork ez du inor ezertan parte hartzea behartzen, baina, parte hartzekotan, euskaraz hitz egin behar duzu. Horretan asmatu dugu: euskara ez dugu mehatxu erabili, 'euskara geu gara' esaten dugu, gauza liluragarri bat antolatzen dugu, eta jendea gonbidatzen dugu etor dadin, hartaz gozatzen. Beti-betiko erakargarritasuna dantzan. "Jendeari eskaintzea da kontua, ez

hau eta hura eskatzea. Gauza erakargarriak eginez, gure gurdira igoko da jendea".

Euskararen erabilera bikoiztu baino gehiago egin da Laudion joan deneko hamar urtean. Nork bereganatu du "saria", ordea? Protagonismorik izan ote dute herrian lanean ari diren askotariko elkarteek, ikastetxeek, euskalgintzan ari direnek? "Laudioko Udalak eman zuen datuaren berri, alkatearen aldarrikapen ofizialaren bitartez. Udalarena, herriarena da saria. Leku guztietatik heldu zaizkigu zorion mezuak, baina

badira emaitza horrekin konforme ez daudenak, gehiago egin behar dela diotenak... Baina ezin beti presio horren azpian bizi. Erabilera areagotzea, dena den, gizarteak egin du, haren lanaren ondorioa da, jende anonimoaren erabilera dago emaitza horren atzean, betiko aurregi ezagunek egiten dutena baino gehiago: Euskara Arlo, euskara elkarte, zinegotzi, alkatet... horietatik aparte dago meritua". Meritu eta lan isila, Muguruza-ren hitzetan. ■



Euskarak batzen gaitu eta Euskaraz bizi nahi

Laudio Llodio
LAUDIO IBAR NOBLEAREN UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE LLODIO

Laudioko Euskara Arloa · Herriko Plaza, 8 · ☎ 944034890 · euskara@laudiokoudala.net · <http://www.laudiokoudala.net>

Euskarazko irakaskuntzaren aldeko festa Larragan

SORTZEN-IKASBATUAZEK antolatu du festa apirilaren 22rako, Nafarroako Larraga herrian. Festa egunaren asmoa Nafarroako Gobernuari “hizkuntza exodoa” saihestu dezan eskatzea da. Euskararen Foru Legearen ondorioz, Nafarroa hiru zatitan banatuta dago eta euskaraz ikasteko aukerak ez dira berdinak Baztanen eta Faltzesen. Sortzen Ikasbatuazek egin dituen kalkuluen arabera, 1.400 umek batez beste 20 kilometro egiten dituzte egunero euskarazko heziketa jaso ahal izate-



ko. 751.812 euro behar dira kilometro horiek ordaintzeko. Aurreratzera horien ondorioz haur bat ere

hil da istripuz urte hauetan. Sortzen Ikasbatuazek ondoko galderak egin dizkio Jose Iribas Hezkuntza kontseilariari: “Prest zaudete datu hauek esku artean izanik, egunero errepidean diren umeei gerta ahal zaienaren erantzule egiteko? Prest zaudete familia hauek guztiak bizi duten egoeraren erantzule izateko? Prest zaudete lege baztertzaila honek sortzen dituen ondorio guztien erantzule egiteko?”.

BAHEA

[Duela zazpi urte euskara ikasten hasi zen kantabriar baten iritzia EGA azterketaz sustatu.com-en:](#) “Lehenik eta behin, azalduko dut EGaren siglek zer esan nahi duten, zeren, antza, askok ez baitakite zer esan nahi duen. EGA ‘euskararen gaitasun agiria’ da. Baina, askotan, euskarari berari ez diote ematen garrantzia handirik eta bai, ordea, ematen diote denborari. Urteak joan urteak etorri, beti kexa bera errepikatzen da ikasleen aldetik, hau da, azterketa egiteko izaten dugun denbora ez dela nahikoa gure ezagutza ondo demostratzeko, eta zoritxarrez, azterketa irizpideak aldatu gabe jarraitzen dute. (...) Atariko proba bahe edo kriba bat baino ez da, zeren ez baitut uste gure ezaguerak horrelako proban adierazten direnik. Askoren ustez, atariko probako galderak buruz ikasi daitezke, eta euskara benetan ezagutu gabe, test hori gainditu daiteke. (...) Zertan datza, baina, idatzizkoa? Ba, azkarrena izatean. Idatzizkoak ematen du azterketa izan beharrean, erlojuaren kontrakoa dela. (...) Demagun gainditzen dugula idatzizkoa eta ahozkoa egiten dugula. Azterketaren eguna, loteria eguna dirudi; gai batzuk oso errazak dira, beste batzuk, ordea, “egingarriagoak”... Ez da bidezkoa hainbeste gai espezifiko ipintzea. Akaso denok, gai guztiak buruz, jakin behar dugu? Hainbat gairi buruz, ezta gaztelaniaz ere, ez gure jakingo”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Hegazkin espioientzat badago dirurik

Gezurra da kutxa publikoetan dirurik ez dagoela. Ez dago dirurik osasungintza, hezkuntza eta eskubide sozialak mantentzeko. Azken hamarkadetako langile borrokaren bidez lortutako ongizate estatua mantentzeko dirurik ez dago. Baina, aldiz, bankuak eta finantza erakundeak salbatzeko eta “merkatuen” gosea asetzeko dirua badago. Badago dirua armagintzan gastatzeko, “merkatuetako” eragile ezagun ugari armagintzaren produkzioan ari baita, hala nola banku handiak eta enpresak, tartean euskaldunak. Hain zuzen, joan den astean honakoa jakin genuen: “Espainiak NATOren hegazkin espioien sisteman parte hartuko du. Defentsaren kostua 126 milioi eurokoa izango da 2012 eta 2037 urteen artean”. NATOk piloturik gabeko hegazkinen bidez 2015ean martxan jarri nahi duen zainketa sistema berria da, eta berton 13 herrialdek hartuko dute parte. Guztira 1.600 milioi euro izango dira, hortik kalkulatzaren dute Espainiako Defentsa Ministerioak 126 milioi euro jarri beharko dituela.

Ez al dago dirurik zerbitzu sozialentzat? Bai, badago. Gertatzen dena da, Espainiako Defentsa Ministerioak beste 26.000 milioi euro ordaindu behar dituela armen truke, Defentsak berak 2011n aitortu zuenez “erabiltzen ez direnak eta existitzen ez diren borrokaldietarako ere balio ez dutenak”. Nabarmendu behar da, kopuru horretatik 23.000 milioi euro Aznarren legegintzaldiari dagozkiola eta 3.000 milioi euro Zapaterorenari. Badirudi Rajoyren Gobernuak Aznarren lorratzari segitzen diola... Arma gehiago, eskubide sozial gutxiago!

Gauzak horrela, logikoa da euskal herritarren zati batek independentzia ekonomiko eta politikoaren beharra mahairatzea –Aberri Egunean ikusi moduan–. Espainiak eta Frantziak NATOren esklabo eta bere “defentsa” sistema milioioidunen esklabo egiten gaituzte.

Juan Mari Arregi



Konfiantza zirrikitua duzu, Ares jauna

RODOLFO ARESEK Inigo Cabacasen hilketan Ertzaintzaren errua onartu izana eta familiari barkamena eskatu izanak bere balioa du, batez ere jarrera horrek jarraipena balu. Poliziaren biolentzia gertakarietan ez da ohikoa agintarien halako onarpenik. Baina gogoratu behar da Ares bera dela polizien burua eta, beraz, poliziaren errua onartuta bi bide gertzen zaizkiola: bat, erantzukizunak bideratzea eta halako akatsak errepika ez daitezen neurri sakonak hartzea; bi, dimititzea. Hamabost egunen bueltan Cabacas hil zuen ertzainaren izena publiko egin eta justiziaren esku jartzen bada, balioko du Aresen ez dimititzea. Bestela, hamaseigarren egunean dimititu beharko luke.

Orain arteko azalpen eta zantzen norabidea ikusita, alabaina, ez da Sherlock Holmes izan behar sumatzeko sailburu honek ez dituela ganoraz burutuko gertaerek eskatzen duten tamainako ikerketa. Konfiantza zirrikitu bat utzi egin behar, dena den, tematuta errepikatu baitu Aresen "kosta ahala kosta" helduko dela ikerketaren bukaerara.

Eta tematze horrek berak badu lehenbiziko susmo ezkorra: testuinguru hartan, zergatik kosta beharko litzaioke Ertzaintzari Cabacasen hilketa nola izan zen zehaztea? DNA frogak medio, Ertzaintza gai da inork ikusi ez duen erasotzaile bat atxilotzeko eta ezin du esan nork egin dion tiro mutil honi, tiro egilea beste polizia ugariz inguratua zegoenean eta, besteak beste, gertaeren dozenaka testigantza direnean?

Konfiantzarako tarte txikia du Aresen, pasatako denboran emandako azalpenak urriak eta kontraesankorrak direlako. Konfiantza txikia, Jose Antonio Varela Ertzaintzaren buruak gertaeretatik astebetera Aresen batera Eusko Legebiltzarrean emandako azalpen

eskasengatik: funtsean, hauek ez datoz bat Cabacasen familiaren, lagunaren eta lekukoaren kontarekin. Interneten eta hedabideetan dozenaka testigantza irakur eta entzun daitezke, denak estilo batekoak eta oinarrian bat datozenak. Varela zioen Ertzaintza Cabacasengana iritsi zenean, emakumezko bat artatzen ari zela mutila. Mutil-lagunarekin Bilbon oporretan zebilen Malagako neska bat zen eta, berak eta lagunak *El Correo*-n hilaren 10ean emandako testigantza esanguratsua da oso, beste hainbat herritarrena bezala.

Valentziako PSOEk hango gobernu (PP) Barne sailburuaren dimisioa eskatu zuen duela aste batzuk polizia ikasleen aurka oldartu zen moduagatik, baina hemen dimisio konturik ez tartean hildako bat egonda ere

Bere lehen bertsioan, Aresen aditzera eman zuen Ertzaintza lehen aldiz iritsi zenean, Cabacas zauritua zegoela jada lurrean. Gero atzera egin eta onartu zuen "Varela agerraldian egin zuen bezala" Ertzaintza bi taldetan heldu zela gertaeren lekura eta bigarren aldiz iritsi orduko lehenak dagoeneko parte hartua zuela. Varela, ordea, Legebiltzarreko deskribapenean dioenez, Ertzainen bigarren taldea izan zen pilotak lehen aldiz bota zituen.

Konfiantza kontua da asko, *El País*-eko kazetari Juan Mari Gastak uste du Barne Sailaren ikerketak argituko dituela kontuok: "Kalean, alderdietan, irekitako ikerketa bukaeraraino iritsiko den kon-

fiantza logikoa dago". Eta Pablo Muñozek kontrakoa dio *Noticias de Gipuzkoa*-n: "Beste behin ere isiltasunik latzena eroriko da eta ardurdunak uniformearen eta kolektiboren inpunitatean babestuko dira".

ETA DIMISIOAZ? PPK eta PSE-EEk uste dute Aresen ondo egin duela eta gainerako sektore politikoak iradokitzen ari dira, zuzenean edo zeharka, dimititu beharko lukeela. Dimisioak, azken finean, gertaerak bakoitza non harrapatzen duen arabera eskatzen dira. Valentziako PSOEk hango gobernu (PP) Barne sailburuaren dimisioa eskatu zuen duela aste batzuk polizia ikasleen aurka oldartu zen moduagatik, baina hemen dimisio konturik ez tartean hildako bat egonda ere.

Baina gaia serio aztertu nahi duenak, handik edo hemendik heldu beharko dio poliziak herri honetan indarra erabiltzeko duen soka luzeari, bai gatazkaren gaia hor egon delako, baina baita gatazkatik kanpoko arazoetan izandako jarrera bortitzagatik ere. Adibideak dozenaka jarri litezke. Polizia ereduarekin zerikusirik du arazoak, gizarte ereduarekin, eta Estatuak duen eta eman nahi zaion autoritarismo mailarekin. Cabacasena ere testuinguru horretan kokatu behar da.

Alde horretatik, eta nagusiki krisiaren eraginez, badirudi garai gatazkatsua datorkigula gure gizarteetan. Gobernuak eta agintariek ondo pentsatu beharko lukete indarra nola erabiliko duten: bai lehen urratsean poliziak parte hartzen duenean, eta baita bigarrenaren ere, egitura judizialak zigorrarekin esku-hartzen duenean. Zoritzarrez, Madril PP erakusten ari den jarrerarekin, hautua argia da: autoritate, indarra eta zigorra.

“Agur, nuklearrak” Japonian esaten da “Saionara Genpatsu”

Gezurra da Fukushima Daiichiko zentral nuklearraren hondamendia dagoeneko kontrolpean dagoela. Intelktualak, komunikatzaileak, zientzialariak eta gero eta herritar ugariago ohartu dira Japoniaren izatea bera jarri dutela arriskuan nuklearrek. Oraindik ezin da baztertu Tokyo bera hustu behar izatea, tamalez.

KENZABURO OE NOBEL SARIDUNA Parisen izan zen otsailan, *Salon du Livre* erakustazokak konbidaturik. Honela mintzatu zen: “Zerura begira nengoela, ikusi nuen hodei garden bat, oso berezia, zama larria zekarrena. Beranduago jakin nuen laino hark erradioaktibitate handia ekarri zuela”. Geroztik ez du beste ezertaz idatzi nahi, ez bada hodei haren ukiaz eta mugimenduaz.

Azken zortzi urtez prestatzen ari zen liburua baztertera utzia duela aitortu zuen 1994ko Nobelak korotutako Oek. Editorea ez du pozik edukiko. “Fukushimak aurrean ezarri dit hondamendi orokorra. (...) Erabaki dut nire lanak aipatuko duela ikusten dudana, egokitu zaidan garai hau. Horra zer ekarri didan Fukushimak”.

Frantziako *Centre National du Livre* antolatzen duen ferian Oek berak eta Satoshi Kamata kazetari beteranoak *La littérature de la catastrophe* aztertu zuten. Biak dira *Saionara Genpatsu* (Agur, Nuklearrak) mugimenduko kide ezagunenetakoa. Bilkura publikoan esandakoak bildu ditu bere blogean *Sciences et Avenir* aldizkariaren zuzendari Dominique Legluk.

Kenzaburo Oek 1965ean argitaratu zuen *Hiroshimako Apunteak* izenekoak, Fukushimakoaz geroztik hainbat hizkuntzatan berrargitaratu

dena. Beti eskaini die arreta Oek bonba nuklearrek kaltetutako herritarrei, baina Parisen aitortu zuen luzaz uste izan zuela arriskua gainditu zuela.

Idazleari Fukushimako hondamendia hasi eta gutxira heldu omen zitzaion mediku bat esatera 1965ean Hiroshimakoaz gauzak oker azaldu zituela: jendeak ez direla kanpoko erradiazioengatik bakarrik gaixotzen, horrez gain irentsitako partikulek barnetik eritzen dutela pertsona eta “horixe gertatuko zela Fukushiman. Berrogei urte barru umeek gaixotzen segiko dute”.

Satoshi Kamata, 77 urte, kazetari ezaguna da, liburu ugariren egilea, ikertu ditu Toyotako langileen bizi baldintzak, kutsaduraren ondorioak, AEBek Japonian dauzkaten base militarak... Orain 10 milioi sinadura bildu nahian dabil zentral nuklearrak geldiarazteko, dagoeneko bost milioi lortu omen dira.

Kamatari gaurko egoerak oroitarazten dio Hiroshiman lehen bonba atomikoa lehertu eta Nagasakin bigarrena zapartarazi arteko hiru eguneko epe hura. “Japoniako Gobernuak ez zuen deus egin bigarrena jaurti ez zezaten, errenditzez ez zuen agindu. Orduan inportatu zitzaion sistema inperialari atxikitzea. Orain inportatu zaio sistema nuklearrari zutik eustea, enpresen

Le Grenier de Choco bloga egiten duenak ipini ditu Interneten Kenzaburo Oeri (handia) eta Satoshi Kamatari (txikietan behekoa) Pariseko *Salon du Livre* erakustazokan berak egin erretratuak. Kamata kazetari beteranoak aitortu zuen, esker onez, nuklearen kontrako mugimenduari sekulako laguntza ekarri diola Oe mundu osoan ospetsuaren konpromisoak. Argazki txikietan goikoan ageri da Hiroaki Koide ingeniaria, Fukushimako hondamendia eta bere ondorioak ulertzeko erreferentzia nagusi bilakatu dena. Internetez ingelesezko nahiz frantsesezko azpiztituluekin entzun-ikus daiteke Fukushimako gertatu eta hamar egunera Koidek emandako hitzaldi osoa, *Nuklearen egia* izenekoak, informazio osagarri hornitua. Gutxitan dago aukera hain hitzaldi argi eta zehatza entzuteko nuklearraren bezalako gai konplexu batez.

interesei”. Orain Kamatari loa kentzen diona Japoniako hurrengo hondamendia da: “Bigarren katastrofe nuklearra prebenitzeko mugitu beharra daukagu”. Horregatik firma bilketak eta jende bilkura handiak, martxoaren 24an egin zen bat Tokyon, hurrengoak uztailaren 16rako prestatzen dute.

Hondamendi giro honetan zer egin behar du idazleak, galdetu diete bie. Kenzaburo Oek: “Indar egin dezake zentralak geldiarazteko edo berriz abiatzea eragozteko”. Katamak: “Gaur gai nagusi bat daukagu: zer egin behar dugun etorkizuneko belaunaldiei ez eragozteko bizi ahal izatea, gizakien lege bizi-tzea alegia”.

Erregaien urtegi madarikatua

Hiroaki Koide aspalditik ari da energia nuklearraren kontrako kanpainan. Ez da idazle edo kazetaria, ez intelektuala, nuklearraren espezializatu ingeniaria baizik. Duela 40 urte murgildu zen atomoetan, hauen promesek liluraturik. Laster etsi zuen, ordea, nuklearen ahuleziez eta arriskuez jabetuta, horien kritiko zorrotzena bilakatu.

Urteotan Koide zokoraturik eduki dute Kyotoko unibertsitatean. Hala ere lortu du erradiazioen neurketan ikertzen segitzea. Hiru liburu plazaratu ditu, tartean *Genpa-*



tsu no Uso, Nuklearren Gezurrak. 2011ko martxoaren 11ko katastrofea iritsi zen arte: harrez geroztik, Hiroaki Koiderengana sarritan jo dute kazetariak bezala gizarte mugimenduek, argibide eske, hitzaldietara konbidatuz.

Joan den martxoaren 8an *Asahi TV* katean, *Goizeko Txoria* saioan, tertuliakideak ari ziren kalakan Fukushima zentralaren egoeraz, agintariak diotela kontrolpean daukatela. Kazetariak deituta, Koide sartu zen solasean bere bulegotik. Pantaila handi batean erakutsi zuen Fukushima Daiichiko laugarren erreaktorearen irudia.

Haluzinatzekoa da zein hondaturik dagoen eraikin hori... barruan daukalarik infernua zelatan. Koi-

deik dio: "Ikus dezakezuenez, hementxe dago piszina, bere barruan dauzka erregai usatuzko barra mordoa. Lurrikara handi batek berriro astintzen badu eraikin hori, piszinako ura ihesi joango da eta erregaia ez da gehiago hoztuko. Eraikina hondoratuko denez, erradioaktibitate kopuru izugarri bat isuriko da airean, ez baitauka inolako horma babesgarririk".

Toru Kamakawa kazetariak galdetuko dio ea ez ote den posible 4. erreaktore horren ondoan beste piszina bat eraikitzea, erregai barrak bertara eramateko. Ez da hain erreza. Hasteko, ezin dituzu barrak atera uretatik, bestela inguruko langile guztiak bertan geratuko lirakeke hilda, hain da gogorra

berengan daukaten erradioaktibitatea. Horrelako sorpresak ematen dituzte nuklearrek, jendeek "erregai usatua" esanda pentsatzen baitute arrisku gutxiagokoa dela.

Erregaiok piszina sartu eta bertatik ateratzeko garabi erraldoi bana zeukan Fukushima erreaktore bakoitzak. "Zeukaten"... lurrikarak eta istripuaren ondoren erreaktoreen leherketak suntsitu baititu. Orain, azaldu du Koidek, TEPCOren langileek putzua garbitu behar dute estreina, gero garabi handi berri bat eraiki, horrekin edukiontzi erraldoi bat eraman piszinako barrak bertan sartzeko... eta hauek ontzian sarturik atera, gauza oso erreza ez pentsatzen bada erregai barrak hondatuta daudela.

"Lan guztiok burutzeko urteak beharko dira" dio Koidek. Kamakawa kazetariak itauntzen: "Eta tarte horretan beste lurrikara handi suntsitzaile bat gertatuko balitz?". Koidek: "Hori litzateke akabera". "Akabera?". "Bai", bukatu du gordin Koidek.


*Asahi TV*ko bideoa frantsesezko azpigituluaz hornitu duen *Fukushima.over-blog* gunearen arduradunak esplikatu ditu azken esaldiak: "Zeren akabera? Zentraletik 250 kilometro arterainoko giza bizitzarena. Toru Tamakawa kazetariak ez du zehaztu, beharrik ez zegoelako: denek dakite Tokyo ebakuatu beharko litzatekela hori gertatuz gero. Solaskideen aurpegietan nabari da ikara".

Zortearen mende da hein batean milioika jenderen eta Japoniaren izatea bera. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Anuntxi Arana

Beti mendiko suak

Idatzi dut “beti”, urtero San Pantzart irian hasi eta garizuma osoan, larreak belzturik agertzen direlako, garbiak, omen. Beti, jadanik orri hauetan gaia azaldu dudan arren, orain ere errepikatuko dudalako zer tristezia ematen duten mazela alferrik karbonizatuek, Jaramendi iparraldeko malkorrak bezala, kabala gabekoa baina ezipel eta haginak dituen —hagin erresidualak, noski, besterik ez baita hemen gandi.

Egunkariak ere aipatu dituzte aurtengo kalteak, hain baitira handiak izan. Biodibertsitatea kontserbatzeko arduratzen den Natura 2000 elkarteko ordezkariak bilkura batera deitu zituzten artzainak, ehiztariak eta mendikariak. Interes kontrajarriak dituztela konstatatu, denak aintzat hartu eta, erremediorik ezarri gabe, inor ez mintzeko moduko ondorioak atera zituzten: belarra suspertzeko artzainek bazkalekuak erretzen dituztenean, paisaia zoragarriak ekoizten dizkigute; ehiztariak, aldiz, ote, berro eta sasi gehiago eskatzen dute, ihi-ziendako babes lekuak; mendikariak aske ibili nahi eta gorroto dituzte lurberri hesituak.

Bost axola interes horiek mendiari. Mintzatzen ahal balitz oihu egingo luke ezin duela gehiago, lar su, lar hortz eta lar gorotz jasaten dituela, zuhaitz eta beresi gehiago behar dituela. Arrangura horien oihartzuna helarazten digute sortzaile irudimentsu eta ikonoklastaren batzuek, hala nola *Okatxu* komikia idatzi duen Mattin Irigoienek, Mari-Zerrama-Lur barregarri baten ahotik iragarri baitigu antzinako oihana erre zutenean ohilduak izan ziren zerriak berriz itzuliko direla iraultza egitera, eta orduan, antzina bezala, pagotxa, ezkur eta gaztainak izango direla nagusi.

Bestela, gure ingurunea aski “ikonolatra” izan ohi da —aspergarriki “ikonoplasma” maiz— eta, mendiaren hondatzea gauza nabaria izanagatik, ez da iruzkin publiko soberarik egiten, beharbada artzainei gaitzituko zaien beldur. Artzaintza euskaltasunaren mamitzat ekarria baita, aurre-historiatik hona. Hemen, neolitoaren ezaugarriak irakasteko erabiltzen diren hastapen zenbait aski txireneak dira: bi



GAIZKA IROZ

eskema desberdin erakusten dizkigute, bat mundukoa eta bestea Euskal Herrikoa; munduko taulan ikusten da neolito aroko berritasunak laborantza eta artzaintza izan zirela, Euskal Herriko taulan artzaintza baizik ez da ageri; eta horixe errepikatuko dute dibulgazioko lan gehienek. Mezu subliminala da gure izaera, gure euskal idiosinkrasia, betidanik artzaingoan datzala. Nahiz eta zerealak jadanik Kristo aurreko 4000garrenetan lantzen ziren Gipuzkoan.

Egia da ez ditugula arrazoiak falta artzainak maitatzeko, miresteko ere askotan. Eta gero, birloratuta gauzkate haien irudiek: Eguberriko jaiotzan nor ezartzen dugu lehen lerroan Belengo portalean, bildots bat besoetan? Nor ez du artzain onak gogatu —hau da, axuriak otsoetarik begiratzten dituenak, berak jan nahi dituelako? Nor zen gaiztoa, Abel artzaina ala Cain laboraria? Eta gainera Txomin Agirreren Joanes...



Egunkariak ere aipatu dituzte aurtengo kalteak, hain baitira handiak izan. Biodibertsitatea kontserbatzeko arduratzen den Natura 2000 elkarteko ordezkariak bilkura batera deitu zituzten artzainak, ehiztariak eta mendikariak




Eguneroko bizimodu tradizionalan, aldiz, herri oso menditsuetan ez ezik, artzainak baino askozaz gehiago ziren nekazari hutsak, supizteko joera estimu handian ez zutenak. Baina ez da orain zertan berpiztu laborari eta abeltzainen arteko borroka arketipiko hori, segur aski ez da gehiago arazoa, hemen bederen. Kontua da, batzuek lurra eta beren burua pozoitzen dituztenean, nor den galtzaile; eta besteek bizidunak oro kiskaltzen dituztenean, ea irabazlerik baden. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Bilboko Kafe Antzokia

Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

1



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



EUREKA! zientzia museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

3



Xu Jun eta Beñat Fuentes The tree

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

4

AZKEN IRABAZLEAK (2317. Argia)

ATXASPI HOTELA

- Xabier Gaztelumendi Lopetegi (Donostia)

TARPOON URPEKARITZA "Sur saioa"

- Orkli S.Coop. (Ordizia)
- Txomin Etxebarria Bereziartua (Bilbo)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Migel Anjel Mintegi Larraza (Beasain)
- Xabier Allur Zunzunegi (Hernani)
- Iruñezar Aek Euskaltegia (Iruñea)

RUPER ORDORIKaren kantaldia

- Blanca Beitia Bengoa (Gasteiz)
- Belen Altuna (Zarautz)
- Getxoko Euskara Zerbitzua (Getxo)
- Ramon Eiguren Eizagirre (Donostia)
- Adunako Udal Liburutegia (Aduna)

KIROLAZ BADAKIT

- Fernando Bustillo Maestro (Donostia)
- Aitor Duñabeitia Martin (Durango)



Kirolaz Badakit

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

gunea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete





*sakelako telefonoetan
nahi duzun lekuan*



**Mugikorretarako gune
egokituari funtzio berriak
gehitu dizkiogu:**

BERRIAK: Aktualitateak eman duena egunez egun jarraitzeko aukera duzu.
ASTEKARIA + ARTXIBOA: Azken hamarkadan argitaratu diren astekari guztiak osorik irakurgai.

Berrikuntzak:

MULTIMEDIA: Beranduegi Telebistako saio guztiak, bideoak, diaporamak, dokumentalak, film laburrak, hitzaldiak... Guztira 600 lanetik gora.

SARE SOZIALETARA loturak eta edozein albiste, artikulua edo multimedia elementutan zure iruzkinak utzi eta besteenak irakurtzeko aukera.

DISEINU BERRITUA erabilterrezagoa izan dadin gunea eta irakurgarriagoa izan daitezen testuak.

PLATAFORMA gehiagotan kontsultagarri: iPhone, Android, Symbian, WindowsPhone eta Samsung Bada.

Proba ezazu mugikorretarako egokitutako webgunea
m.argia.com

